



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 18



**Pelle-Ttiki
Arantzako Haur
Eskolan erabiltzaile
kopuruak beheiti** / 10



**5.535 ikaslek
ikasturtea hasi dute
eskualdeko
ikastetxeetan** / 12

**Usategietako
tradizioaren besta
irailaren 22an
Lizarietan** / 15

SINADURAK



ttipi txartela

ZOKKETA / 41



Saioa JAURENA ATXA | Elizondoko errugbilaria

«EMAKUMEZKOEN KIROLA KONTSUMITZEA DENON ARDURA DA»

16 urterekin errugbian hasi zenetik kirol honi lotuta bizi da. Bere ametsari tiraka, Euskal Herrian eta nazioartean ibilbide ederra osatzen ari da. Orain, berriz, 2021 ean Zeelanda Berrian jokatu den Munduko Txapelketa du begiz jota. / 8

Basaburua Eguna Zigan

Aurten hirugarren urtez Basaburua Eguna ospatuko dute irailaren 21ean. / 35



ZURGIN-LANAK OROKORREAN

Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)

ibarrazurgina@gmail.com 

636 701 204



KANPOKO LANAK

Teilatuak (veluxak aukeran: automatikoak edo manualak), portxeak eta egur zaharrekin edo berriekin egindako fatxadako lanak.



BARRENEKO LANAK Klase guztietako lanak egiten ditugu

LURRAK:

Lur eskaintza zabala: betiko tarimatik hasi eta egungo material berrienetara (parketak, binilikoak...) Hainbat kolore aukeran: betarekin, lisoak...



ATEAK:

Modan dauden ate lakatuak zein diseinu klasikoak eskuragarri: moldurekin, lisoak kristalekin, korrederak... Etxe barrurako eta baita sarrerarako ere.



ARMAIRUAK:

Neurrira egindako diseinuak, bezeroen beharretara egokitu eta tokia aprobetxatuz. Armairuen kanpoko itxura eta barreneko antolaketa ere osorik aukera dezakete eta armairuekin bat datozen ohe eta mahaitxoak ere aukeran dituzte.



ESKAILERAK ETA BARANDAK:

Lekura egokitu eta diseinua eta erosotasuna eskutik doaz gure proiektuetan.



GAUR EGUNERA EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK



NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Kairos

Idaztea hondartzan paseatzea da. Oinak bustitzea. Uraren kolore gardenetan murgiltzea. Burua aparretan, itsasoaren kulunkak eramatea. Hitzak olatu sailen gisan sortzen direnean, atzamarrak euren erritmoari ezin segika ibiltzen dira. Hondartza laku bihurtzen denean, konfiantza izan behar da, olatuak laster etorriko direla jakin.

Idaztea Kairosen kopetako ile xerlo lodia harrapatzea da. Greziako jainko bat da Kairos, hagitz azkarra, istant galkorren sinboloa. Une iragankor horiek marka dezakete kaskarriaren eta handitasunaren arteko aldea, zortearen eta zoritxararen arteko desberdintasuna.

Inspirazio, intuizio horiez jabetzeko, begiratzeko eta pentsatzeko denbora hartu behar da. Aspertzeko ere bai. Franco Berardi *Bifo* filosofoak dioen bezala, amesten dugun abenturaren eta hura betetzearen arteko distantzia baita asperdura. Hain zuzen ere, distantzia horrek aberasten du gure existentzia.

«ASPERDURAK
ABERASTEN DU
GURE
EXISTENTZIA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Barakaldokoa naiz eta...

Halaxe hasten zen Jon Sarasuak idatzi eta Oskorrik kantatutako 'Euskaldun berriaren balada' gogoangarria. Hilabete bukaera arte matrikulazio-kanpainan dabilta euskaltegiak: 'Igual no es tan difícil como dicen' bideoa aurkeztu dute, *ez da hain fazila* hari erantzunez. Euskara ez da ingelesa, baina ez dago hila, animo neska-mutila!

NABARMENTZEKOAK



AINARA
PALENZUELA
ARRAUNLARIA



IKER
MARIEZKURRENA
ARRAUNLARIA

Orioren gibeletik, bigarren sailkatu zen Hondarribiko arraun taldea Kontxako Banderan. Lan bikaina eginez, parte-hartzaileen artean, Ainara Palenzuela lesakarra aritu zen.

Aurten bigarren urtez segidan, preziatua den Kontxako Bandera irabazi du Hondarribia Arraun Elkartearen ari den Iker Mariezkurrena sunbildarrak Donostian.

ATZERA BEGIRA



2009-09-17 · TTIPI-TTAPA · 502 zk.

Arkeologiaz Nahia Senper Maziziorrekin

Nafarroa iparraldeko arkeologia indartzeko helburuarekin, duela hamaika bat urte Larrate arkeologia enpresa sortu zuten eta horren harira, 2009an, Nahia Senper Mazizior enpresako bazkide beratarriaren elkarriketa egin zion TTIPI-TTAPA. Garai hartan egin zituzten aurkikuntza garrantzitsuak izan zituen hizpide, tartean Urdazubiko Azkar gazteluan egindako lanak: «gazteluaren perimetroa harrapatu dugu. Bi harresi aurkitu ditugu, bat bertzea baino barrenerago». Horrez gain, orduko bere lanari buruz mintzatu zen: «gure lana ez da toki batera joan, zulu eta lau panel paratzea, eta hori jakitea nahi dugu. Sozializazio lana hagitz garrantzitsua da guretzat, jendeak gure lana ikustea eta azalpenak aditzea garrantzitsua da».



erran.



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Irtzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdosain, Maitane
Maritorea, Aranbxa Iturralde,
Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oleiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperreko udalak,
Malerrekako Zerbiltzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 38€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€





KOLABORAZIOAK

JOSEBA URROZ TELLETXEA

Inori ez zaigu axola ingurumena

Gure solasetan eta buruan ibiltzen ditugun gaiak norbaitek antolatzen dituelakoan nago ni, ez dakit zergatik eta zertarako. Orain dela 11 urte inguru krisia lehertu omen zen, komunikabi-deetan horixe zioten, guk ere gureganatu genuen gaia. Aitzinetik zer genuen? Prestige akaso? Hegaztien gripea? Krisiaren ondotik, etxegabetzeak ziren hizpide. Orain indarkeria matxista eta nik aipatu nahi dudana: klima aldaketa.

Eguraldian aldaketak ditugula guttik ukatuko du, nahiz eta lurrak dituen 4.500 mila miloi urteetan (ene!) 50 urtez aldatu daitekeena hutsaren hurrengo izan. Badirudi aldaketa horren erruduna gizaki maltzurra denaren teoria nagusitu dela, kontrakorik dioenik baldin bada ere. Egoera ez da hobetzen ari, alegia, negutegi efektua eragiten duten gasen isurketa ez omen da ttikitzen. Ez dut, ordea, hori denon afera denik entzuten, Gobernu eta agintariena dela baizik. Ba nik ez dut hala uste: mundu kokor honetan, honezkero 7.000 miloi pasa lagun omen gara (etsaiak barne), eta izanen du denok egiten dugunak eraginik, ezta?

Adibide batzuk. Aski duzue *Google Maps* erabiltzen duzuenok gure planetan gizakiak ukitu gabeko bazterrak bilatzen saiatzea.

Mundu aurreratuan, ekoizten dugun janariaren %30 inguru botatzen omen dugu, arropa zikindu gabe garbitzen dugu eta egunero duxatzen gara.

«INGURUMENAREN KONTUAN EZ GARA BENETAKO DEUS EGITEN ARI»

Nork egin nahi dio ohitura horiei uko? Beirazko botilak egin, eta behin erabili eta hautsi egiten ditugu berriz egiteko.

Orain, badirudi, plastikozko poltsak direla etsaiak, eta

konbustiozko motorrak. Bakoitzak auto bat edo gehiago ere badugu, egunero kilometroak egiten ditugu 100 zalditik goiti dituzten ibilgailuekin, borts plazako autoetan lagun bakarra. Imajinatu dezakezue nola izanen zen hori egiazko zaldiekin? Ez gaude prest autoa partekatzeke, eta gainera, auto haundiagoak daude modan. Mugikortasun elektrikoak? Txorakeria galant!

Espainiar estatuan sortzen den indar elektrikoaren hirutik bat bertzerik ez da berriztagarria. Eta orain, auto guzientzat elektrizitatea behar da, lehen motorrik ez zuten bizikletentzat ere bai, eta patinete madarikatuentzat. Nondik aterako da hainbertze elektrizitate berriztagarri? Eguzki eta haizetik? Landa eta mendi guziak plaka eta haize-errotaz beteko ditugu? Eta nola uste duzue fabrikatzen direla tresna horiek? Lurrean ereinda?

Hegazkinek botatzen duten keari buruzko legedirik ez omen da, eta gero eta hegazkin gehiago dabilta airean; garraio eroek ez dute mugarik: ondasunak munduaren mutur batetik bertzerara ibiltzen dira bueltaka... Eta nola egin atzera, nor dago prest?

Mundua zaintzeko arrazoia ez da gure ondokoei oinordekotza on bat uztea, haiek ere izan baitaitezke gu bezain ankerrak eta berdin hondatu. Arrazoia morala izan behar du, gauzak ongi egitea hobe delako. Zerbaitek benetan kezkatzen gaituenean, egin beharrekoa egiten dugu, neurriak hartu. Ingurumenaren kontuan, uste dut ez garela benetako deus egiten ari. Hortaz, uste dut ez gaituela egiatan kezkatzen.



MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

Udaldia

Uztailaren lehenean itxi genuen bizi garen etxeko atea, Iruñeko deserrian, eta sortu ginen txokora etorri ginen, gure uda pasa egitera, aspaldi honetan usatuak garen moduan. Egun hori noiz ailegatuko esperoan emanak genituen aitzineko hilabeteak.

Handik hunat, urteroko gauza bertsuak egin ditugu. Bidasoari besarka ematera hurbildu gara. Berriz ikusi eta bisitatu ditugu aspalditik ezagunak ditugun aurpegiak eta paisaiak, betikoak baina aldiro diferenteak direnak. Mendiak eta jendeak aurtan ere eskuzabal portatu dira gurekin. Hariztegi xaharrean eta baserri urtetsuan bildu ditugu ustekabeko opariak: onddoak eta solasak (ametsetan hegaka ibiliz gozatzen den gizonaren bizipoza, konparazio batera). Lurrari eta naturari lotuak bizi dira bi tokietan, arbola eta hankabiko animalia, lurrarekin eta naturarekin bakean.

Ostatuak izan ditugu biltoki. Batzuek gonbidatu gaituzte xurrupa egitera eta bertzeek gure kontura hartu dute tragoxka. Eman diogu elkarriz bakoitzaren berri. Edantokietan, musika ahaire ederrak aditu ere egin ditugu, bertakoak eta urrunekoak (arrunt bereziak Flandriatik etorririko bi emakumek ekarri zizkigutenak).

Lagun batzuekin sentimendu gazi-gozoen oihanean barna paseatu gara (maitasuna, adiskidetasuna eta istorio), eta bertze bat oinez abiatu da Pirinioak bururen buru gurutzatzera bakar-bakarrik, motxila bizkarrean harturik. Larhango kaxkotik ikusi ditugu mundua hondamendira daramaten agintari zitalak, zazpiak bat (sei gizon eta emakume bakarra), pipa pozoitsua erretzen Biarritzeko kasinoan, gure ondasunekin jostetan, milaka polizia armatuk egin duten zerrakuraren barrenean. Arrek, munduaren baloiari ostikoka ari ziren bitartean, euren emazteak Ezpeletara bidali dituzte, abanikoarekin jendea salutatzerako, kantinera gisara.

Mundu honek bertzelako martxa behar lukeela (bertzela, akabo baita) uste dutenak protestan sumatu ditugu, ahal izan duten moduan, ahal izan duten tokian, Urruñan, Baionan, Hendaian, Irunen.

Eta bertze horrenbertze kontu pasa berri den udaldi honetan. Hondarreko, Hondarribia ere begiz jo dugu, irailaren 8an. Berdintasuna eskatzen duten emakume eta gizonak Kale Nagusian goiti joan dira, arrazoia eta zentzua partitzen eskuin-ekzer. Oraindik ere baziren plastikoak, baina joan den urtekoak baino puska tikiagoak. Kolore beltz bakarrekoen multzoa urritzen ari den bezala, handitzen doa mila kolore biltzen dituenen konpainia, inor baztertuko ez duen alarde baten (gizarte baten) aldekoena.

Egun horretan berean, biderako zakotea prestatu, gurdia zanpeteraino bete, eta abiatu gara hegoaldera, neguko hotzetik eskapo zeruan ikusten ditugun hegaztien gisara. Egun bat guttiago falta da heldu den urteko aldairarako.

11 GALDERA LABUR

RAKEL MIGELENA TELLETXEA IGANTZIKO ZINEGOTZIA

«Besta Batzordea indartu nahi dugu, iritzi gehiago biltzeko»

Aurkeztu zure burua.

Lesakako fabrika batean lan egiten duen igantziarra naiz. Orain 17 urte hasi nintzen eta hango arduraduna naizenez, ordu aunitzez lan egiten dut. Horretaz gain, bi alaba ditut eta eskolaz kanpoko jarduerak direla eta ez direla, horien arabera dute nire eguneroko martxa.

Familia, lana eta Udala...

Bai. Igantziko kultura-zinegotzia naiz eta, Mertzerekin batera, bestak antolatzen ditut. Aitzinetik Jonerekin aritu naiz eta berak bazuen esperientzia. Guk ahal duguna egiten dugu. **Bigarren agintaldia duzu hau...** Aitzinekoan hiru urte egin genituen. Talderik atera ez zenez, bilera egin eta herritar

batzuk bildu ginen. Hasitako lanak bukatzeko joan den agintaldiko lau eta bertze hiru aurkeztu gara.

Erabakia hartzea zaila izan zen?

Bai, beharra ikusita sartu nintzen eta gustura nagoen arren, ez da erraza...

Bestez gain, bertzelako ekitaldiez ere arduratzen zara?

Sanjuanak antolatzen ere aritzen naiz eta orain kultur ekitaldiekin hasiko naiz, Estirekin. **Azken aldian herriko bestak antolatzen aritu zarete...**

Besta Batzordearekin elkarlanean aritu gara. Aurten bilera jende gutti etorri da eta hori indartu nahi genuke. Etortzen direnek lan handia egiten dute: goitibeherak, betizuak, herri-kirolak... antola-



tzen dituzte. Baina pena da, denen iritziak bildu nahi izaten ditugulako.

Udalan sartu aitzinetik Besta Batzordean ibilia zara?

Ez. Egia erran, sartu naizenean ohartu naiz egiten den lanaz. **Zein ekitaldi duzu gustukoen?** Orain egunekoak gozatzen ditut gehiago. Betizuak, erraterako, izugarri gustatzen zaizkit. Gazteek erakustaldi ederra eskaintzen dute.

Aldaketak izan dira bestetan?

Bestak baino adinaren arabera bizitzeko modua aldatzen dela erranen nuke.

Zer eskatuko zenieke aurtengoei? Arazorik gabeko besta parte-hartzaileak izatea.

Bestak bukatuta, egunerokora. Gogorra izaten da. Udaleko ardurak, guraso elkarteko osatua... dela eta, lan egin behar izaten dugu. Familiakoekin egoteko ere aprobetxatu nahi izaten dut eta ia atsedetik gabe bueltatzen naiz azkenean.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak



IRAKURLEAK MINTZO

Frantxixko gogoan

IRUNE SOTO AKELARRE ELKARTEA (ZUGARRAMURDI
HERRIAREN IZENEAN)

Irailaren 22an urtea beteko da Frantxixko galdu genuela. Bera ez zen batere ospakizunen edo protagonismoen aldekoa, baina aunitz maite zituen kontu eta kantu zaharrak, eta bertsuak ere. Bertsu artean ekarri genuen gogora bestetan, eta bertsu berekin gogoratu nahi dugu orain ere.

(Maialenek):

Zortzi urte pasa dira,
denbora joaten da hegan...
eta bada dama beltz bat
aritu ohi dena segan.
Frantzisko, egoten zena
gure entzule ileran,
orain ez dago gurekin
nahiz eta egon guregan.
Egiten dugun guztian:
lagun-arte bileran,
bote-luzean, aitian,
gure herri-ibileran...
bertsotan, kontzertuetan,
festetan ta erreferan,
gogoratuko zaitugu
zuk maite zenuen eran.

(Uxuek):

Inork nahi baino lehenago
heriotzak eramana,
zuen tristurak ni ere
malkoetara narama.
Zuengan ikusten baita
hutsune handi baten zama,
zauri bilakatu baita
etendako harremana.
Hutsune bat maitasunez,

memoriaz bete dana.
Hau da kontsolamendua
eman nahi ta ezin emana!
saiaitu gara bertsotan
gerturatzen zuengana,
familia ta lagunei
besarkada handi bana.

(Maialenek):

Barkatu poteoaren
bukaera bada hitsa...
Negar egitea ona da,
kolpea hain da bortitza...
Elkarrekin negar egin,
egon, elkarrekin mintza...
Hala, falta den laguna
oroitu nahian gabiltza.
Festa egitean ere
indartzen da herrigintza,
eta hau da gu garena:
kantua, musika, hitza...
Nahiz mina ematen duen,
nahiz ukitu bihotz-mintza,
besterik ez daukagu ta
ospa dezagun bizitza!

(Uxuek):

Ez da erraza erantzten
minaren iluntasuna,
ez da erraza hitzekin
arintzen zama astuna.
Uste ez ta malko beroz
busti da besta eguna,
oroituz momentu onak,
eta joandako laguna.
Pozak erakartzen gaitu
baina tristuraren bruma
sartzen bada ezin beti
izan gogorra, zurruna.
Zuengan dago Frantzisko
senidea ta laguna,
mina ematen du baina
zein ederra maitasuna.

Mutil-dantzetan gertatzen den
genero bazterketari begirada
bat

KATTALIN EZKERRA

PLAZARA DANTZARAREN IZENEAN

Aurten, azken urteetan bezala, Baztan-go jauziak egiten diren plaza guziak dantzariz bete dira.

Elizondoko herriak bestetako programan argi utzi zuen: «Elizondoko elizaren inguruan edo bertze edozein lekutan ematen den emakumeekiko bazterketa salatu nahi dugu eta (...) egiteari uztea eskatzen diegu». Baztandarren Biltzarrak ere bai: «B.B. elkar-teak ez du mutil-dantza baztertzailerik babestuko». Hala ere gizon talde batek bizkar eman nahi izan dio Baztanen gero eta zabalagoa den eskaerari eta berriz ere mutil-dantza baztertzailerik antolatu zituzten Elizondoko bestetan.

Bazterketarekin tematuak zirela ikusirik, horrekin akitzeko modu bakarra ekintza zuzena zela erabaki genuen: 26an 20:00tan 30 bat feminista bazterketa gauzatzeko erabiltzen duten elizako eremuetara hurbildu ginen dantzatzeko prest. Baztertzailerik batzuk aunitz urtez bakarrik dantzatu zuten; bertze batzuk *billantziko* bakarrik; eta bakar batzuek saio osoan zehar dantzan jarraitu zuten, beraz, hauek erreza dute, dantzatu daitezela aniztasunez beteriko herrietako plazetan.

Elizako jardinetan emakumeekin dantzan ibili ziren batzuk biharamu-nean plazan mutil-dantza parekideetan parte hartu beharrean, ikastolako parkera joan ziren dantzatzera. Zergatik? Tarte batean baztertzeari uzteko gai direla erakusten badute ere,

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

beren jarrera matxistarekin segitzea erabaki dutelako.

Aukera dute honekin akitzeko. Aukera dute oraingo eta etorkizuneko Baztanen lehenbailehen laketzeko. Aukera dute behingoz herritar guziendako bestetako partaide izateko. Horretarako botere guneak partekatze prest ere egon beharko lukete, baina horixe da patriarkatuarekin bat egitearen ondorioetako bat: boterea emakumerik gabe gizonen esku mantendu nahi izatea.

Horregatik hamaikagarrenez errepikatuko dugu: bazterketarekin akitu eta elizako atean egin genuen bezala, herrietako plazetan dantzatzeko dugu elkarrekin.

Eskerrak Agerra auzotik

TXARO ZUBIETA

AGERRAKO AUZOTARREN IZENEAN

Joan dira berriro ere Agerrako bestak, aurtengoan 41. aldiz. Giro ezin hobean pasatu dira eta gozatu dugu. Besta hauek auzolanean egiten dira eta denon laguntza behar-beharrezkoa da aitzinera ateratzeko. Horregatik lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi ditugu. Eskerrak bestetan modu batera edo bertara lagundu duzuen guztiei, dantzan, kantuan, boletoa, salduz eta erosiz, tortilla eginez, krosean, afarian, bazkarian, bertzelako ekarpenak eginez....parte hartu duzuen guztiei.

Hurrengo urtean elkar ikusiko dugulakoan, mila esker.



BOTA BERTSOA

HEGOI SILVEIRA ARRIETA

BAZTAN-BIDASOKO XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETAN 1. SARIA (10 URTE ARTE)

Janari onena

Doinua: Guretzat berdin dira

*Janari aunitz daude
gustatzen zaitenak
baina bat da onena
erraten dit senak.*

*Italianoa da
lasaina bezala
pizza dela onena
bertzik dire itzala.*

GOITI ETA BEHEITI



Zirkulu polar artikoa baztandar bat



Norvegia iparraldean, zirkulu polar artikoko toki ezezagunetan arroilak irekitzen ari da Viking Open Canyon taldea, eta tartean dabil Elizondoko Xabi Mendikoa.



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Exetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



"TELLETXEA"
Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johnntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

«Ametsak egia bihurtzen direlarik dena errazagoa da»

SAIOA JAURENA ATXA ERRUGBI JOKALARIA

16 urte zituela hasi zen errugbian eta geroztik horri lotuta bizi da. Euskal Herrian eta nazioartean ibilbide polita osatzen ari da eta orain Munduko Txapelketari begira dagoela aitortu digu

G. PIKABEA

Lanbidez irakaslea eta afizioz errugbilaria da Saioa Jaurena Atxa (Elizondo, 1989). Garbi dio «alderantziz izatea» nahiko lukeela, nahiz eta badakien «ezinezkoa» dela. Hala ere, *ezina ekinez egina* den seinale, bere ametsari tiraka eta gogotik lan eginez, urruti ailegatu da errugbian. Berandu hasi zen, baina probatu bazuen probatu, errugbiari lotuta bizi da. Are gehiago, noraino ailegatu den ikusteak azken urteotan egindako sakrifizio guztiak uxatu dizkio.

Nondik datorkizu errugbiarekiko lotura?

Haurra nintzela eskubaloian ibili nintzen baina 16 urterekin errugbian jokatzeko hasi nintzen arte, ez nuen inongo loturarik errugbiarekin, ez nuen ezagutzen. Institutuan probatu nuen, eskubaloia utzi berria nuelarik, eta Lekarozen mutilekin entrenatzen zuten Nartabarteko neska klase-kide pare batek animatuta, batzuk elkartu eta Lekarozen entrenatzen hasi ginen. Nesken talderik ez zegoela eta, segidan Iruñeko La Unica taldera bidali gintuzten. **Orduko nolako oroitzapenak dituzu?**

Arras politak. Jokalari berri aunitz bildu ginen La Unican, erdiak Baztan aldekoak, eta nahiko talde polita muntatu genuen. Orduan beterranoak zirenek beso zabalik hartu gintuzten. Besta arras onak, momentu arras politak... Ha-

sierako neska haietatik oraindik mantentzen ditudan lagun handiak egin ditut. Gutti izateak gehiago elkartu gintuen eta elkar ez ezagutzetik arras talde elkartua izatera pasatu ginen.

Geroztik ibilbide polita egin duzu: La Unica, Getxo, Zeelanda Berria...

Bai, Lekaroztik Iruñera joan eta urte batzuez han ibili nintzen. La Unican errugbia zer den ikasi nuen, eta hantxe lotu

nintzen kirol honetara. Hasieran denbora-pasa hutsa izaten hasi zena, gerora zerbait serioago bihurtzen hasi zen eta Getxora joan nintzen Liga Nazionala jokatu ahal izateko. Getxok Estatu Espainiarrean telebistan edo Interneten ikusten nituen jokalarien kontra jokatzeko aukera eman zidan. Aldi berean, nire buruari gehiago exijitzen hasi nintzen eta errugbian segitu nahi nuela



Jaurena Baionako taldearekin jokoan.

Motzean

Liburu bat? Jenisjoplin.

Errugbi talde bat? Zeelanda Berriko Black Ferns.

Eskubaloia ala errugbia? Errugbia.

Errugbia eta eskubaloia ez den bertze kirol bat?

Txirrindularitza, bai ikusteko baita praktikatzeko ere.

Hondartza ala mendia? Mendia.

Baztango tokirik gustukoena? Alkurruntz.

Bizitzeko toki bat? Bertan bizi ez banaiz ere, Baztan.

Gustura bisitatuko zenukeen toki bat? Kanada.

Musika talde bat? Zea Mays.

argi ikusi nuen. Garai hartan, Lekarozko Agurtzane Obregonok Baionako taldean jokatzeko zuela aprobetxatuz, bera ikustera joaten hasi ginen eta gerora, nik ere Baionan jokatzeko aukera izan nuen urte batez. Han ikusi nuen zer den egiazko errugbia, kalitate handikoa. Salto handia sumatu nuen. Ondoko urratsa Zeelanda Berrira joatea izan zen. Nire betiko ametsa bete eta urte batez Zeelanda Berrian jokatzeko aukera izan nuen. Munduko talde eta jokalaria onenen artean jokatzeko aberasgarria izan zen, bai kirol aldetik baita pertsonalki ere. Handik bueltan, urte batez, Getxoko taldean aritu nintzen, estatu mailan presente egoteko, eta azken hiru urteotan Baionan ari naiz.

Baionan ari zara gaur egun...

Bai, ez da hain erraza entrenamendu edo jokalarien aldetik maila ona duen talde bat aurkitzea, baina Baionan behar dudako errugbi maila aurkitu dut. Frantziako lehenbiziko mailan ari da, liga arras ona da, klubetik gero eta gehiago exijitzen digute eta goi-mailan jokatzeko behar dudako eritmoa hortxe topatu dut.

Zein dira taldearen helburuak?

Joan den urtean, espero ez bezala, finalerdietara ailegatu ginen. Finalerdietan liga irabazi zuen taldearen kontra galdu genuen. Aurten, lehen-dabiziko zortzi onenen artean sartzea dugu helburu eta berriz finalerdietara ailegatzeko ere aunitz gustatuko litzaiguke.

Zein da goian segitzeko sekretua?

Goiti orain ailegatua naiz, eta ez pentsa, kosta zait. Nahiko burugorria naiz, eta sekretua nahi den hori lortzeko lan egitea dela erranen nuke. Amets bat duzularik horri eustea bezalakorik ez dago. Hortaz aparte, zorte handia izan dut ez baitut lesio larririk izan eta ez dut inoiz geldialdi luzerik egin. Gainera, adinarekin gero eta hobe ikusi dut nire burua. **Errugbia tarteko, zerbait utzi behar izan duzu?**

Gaur egungo mailan arituta bai, gauza aunitz. Hasiera hartanez, unibertsitatean nintzen, asteburuetan lan egin eta errugbian jokatzeko moldatzen nintzen, baina 22-23 urterekin serio hartzen hasi nintzenetik gauzak utzi behar izan ditut. Arratsalde aunitzetan entrenatu behar izaten dut eta ez dut bertze gauzak egiteko denborarik; asteburuetan ere lehentasuna errugbiak du, eta ezin dut bazkari bategatik edo bertze zerbait dudalako errugbian ez dudala jokatu erran. Lehentasuna errugbiak du eta gero daude gainerakoak. Sakrifizioa da, baina norbere helburuak betetzen direlarik, dena errazagoa da.

Hortaz, zuk garbi izan duzu...

Bai, arras garbi. Eta nire ingurukoek ulertzen naute. Bada-kite errugbia zer den niretako.

Zer eman dizu errugbiak?

Gauza aunitz erakutsi dizkit: sakrifizioa zer den, ondokoari laguntzea zer den, nahi dena nola lortzen den...

Eta kendu?

Egin ditudan sakrifizioak nik hala nahita egin ditut, ez naiz sekula behartua sentitu eta ez nuke kendu didala erranen.

Txapelketa handienetan jokatzeko aukera ere izan duzu: bertzeak bertze, Munduko eta Europako txapelketetan...

Duela sei-zazpi urte Espainiako selekzioarekin hasi nintzenetik, Europako txapelketa bat baino gehiago jokatu eta irabazi ditugu. Txapelketa horietan, ordea, Frantzia, Irlanda edo Ingalaterra bezalako nazio handiek ez dute jokatzeko, beraiek bertze liga bat dutelako. Guk baino maila apalagoa dutenen kontra jokatzeko dugunez, arazo handirik gabe irabazi izan dugu. Munduko Txapelketara sailkatzeko balio duten bertze Europako txapelketak, ordea, zailagoak izaten dira, goi mailako bizpahiru talde sartzen direlako eta exijentzia handiko lehiak izaten direlako. Aurtun 2021ean Zeelanda Berrian jokatu den Munduko Txapelketarako sailkatzea da baztandarraren helburu nagusietako bat.



Munduko Txapelketarako sailkatzea da baztandarraren helburu nagusietako bat.

pelketarako sailkatu nahi dugu eta horretarako goi-mailako talde pare bati irabazi beharko diegu. Gainerakoan, bai Europa mailakoak baita jokatu dudana Munduko txapelketa ere arras esperientzia politak dira, eta aldi berean, gogorak. Torneo luzeak dira, eta momentu onak eta txarrak izaten dira. Irabaztean dena ongi joaten da, baina galtzen delarik taldekideak desanimatu egiten dira, eta entrenamenduak ez dira hain ongi ateratzen. Horri bueltan ematen jakin behar da.

Euskal Herriko emakumezkoen errugbian nolako maila dago?

Duela hamar urte maila arras ona zen. Jokalari aunitz ziren orduko Espainiako selekzioan

jokatzeko zutenak. Geroztik beheiti egin du. Duela urte pare bat Getxoko taldea Oho-rezko Mailatik jaitsi zen eta horrek kolpe gogorra eman zion emakumezkoen Euskal Herriko errugbiari, zerbait gehiago nahi genuen Euskal Herriko jokalariek Getxora joaten baikin, Liga Nazionalan jokatzeko. Orain ez dago holako aukerarik, eta jokalariek on aunitz Euskal Herriko kanpo joaten dira. Hala ere, azken urteotan maila hobetzen ari da. Badira dirua inbertitzen ari diren klubak, lehendabiziko mailara igotzeko lanean ari direnak eta gaztetxoekin lan handia egiten ari direnak. Bide horretan segituz, ea hemendik hamar

**«EZAGUNA BALITZ
JENDE GEHIAGO
HASIKO LITZATEKE
ERRUGBIAN»**

**«DENON ARDURA DA
EMAKUMEZKOEN
KIROLA
KONTSUMITZEA»**

urtetara bertze maila bat lortzen dugun.

Eta eskualdean?

Ez dut batere argi. Baztango mutilen errugbi taldea ere kili-kolo ibili da, nahiz eta azkenean, zorionez, segituko duen. Emakumezkoen errugbia bulkatzea gustatuko litzaidake, baina mutilek ere euren taldea mantentzeko erronka dute eta ez da erraza bertze erronka bat bizkar gainean hartzea. Ni neu orain ez nago Baztanen eta zaila ikusten dut ardura hori nire gain hartzea. Baina neskei errugbia probatzeko erranen nieke, ezagutuko balute gehiagok aukeratu lukete.

Oro har, nola ikusten duzu emakumezkoen errugbia?

Emakumezkoena beti gizonzkoen kirolaren gibeletik doa. Azken urteotan, pauso handiak eman ditugu; hedabideetan inoiz baino gehiago ageri gara eta klubetan lehen baino aise toki handiagoa dugu. Hori da bidea, bai emakumezkoek baita gizonezkoek ere garrantzi bera ematea.

Zerk huts egiten du?

Kirolaz aparte, negozioa denez, eta gizonezkoen kirolak gehiago saltzen duenez, gizonezkoek garrantzi gehiago ematen diete. Azken batean, denon ardura da, emakumezkoen kirola ere kontsumitu behar genuke.

Lanbidez irakaslea, afiziaz errugbilaria. Nola uztartzen dituzu?

Zorionez, irakasle izanda arratsaldeetan entrenatzera joateko eta asteburuetan partidak jokatzeko ez dut arazorik. Selekzioarekin joan behar dudalarik, berriz, Hezkuntza Departamentuan baimena eskatu behar izaten dut eta gero eta zailtasun gehiago ditudut.

Noiz arte segituko duzu errugbian?

Oraingoz, Munduko Txapelketari begira ahalik eta hobekien eta gehien entrenatu nahi dut, azken aukerak direlako eta ahalik eta gehiena gozatu nahi dudalako. Hortik aitzinera ikusiko dugu.

Tirriki-tarraka aitzinera egin nahian

2007ko ilbeltzean ireki zituen Pelle-Ttiki Arantzako haur eskolak ateak. Geroztik, 1-3 urte bitarteko haur andana pasatu da bertatik baina azken urteotan beheiti egin du erabiltzaile kopuruak

G. PIKABEA ARANTZA

Beharra, ilusioa eta gogoia auzolanari lotu zitzaizkionean eman zituen lehenbiziko urratsak Pelle-Ttiki Arantzako Haur Eskolak. 2006an izan zen hori. Urte haietan jaiotze-tasak goiti egin zuen eta Bortzirietan haurren zaintza eta gurasoen lana kontziliatzearen inguruko inkesta egin ondotik, Arantzako gurasoen artean eskolan hasi bitarteko haurrentzako zerbitzuaren beharra zutela ondorioztatu zuten.

Dindaia Fundazioarekin harremanetan jarri eta honek egindako proposamena onartu zuen Arantzako Udalak. Elizak garai batean Arantzako ikastola izan zen aretoa utzi zuen, eta Udalaren laguntzarekin, gurasoek auzolanean egoitza egokitu zuten, Nafarroako Gobernuak halako kasuetarako ezarritako baldintzak betez. Ikastola izan zeneko izena ere berreskuratu zuten: Pelle-Ttiki. Halaxe hasi zen, 2007ko ilbeltzaren 2an, zortzi neska-mutikorekin. Finantzazioa Arantzako Udalaren gain gelditu zen, eta kudeaketa, berriz, Dindaia Fundazioaren esku. Horrela funtzionatu du hamabi urteotan.

Haur kopuruan goiti-beheitiak

Geroztik Arantzako haur andana pasatu da Pelle-Ttikitik. «Batuetan gehixeago, berzteetan guttixeago», dio Joseba Pikabea Arantzako zinegotziak. Horren erakusle dira datuak: zortzi-bederatzi haur ibili diren urte saila izan dira, baita hiruzpalau haur izan

diren ikasturteak batzuk ere. Hain zuzen, haur kopuruaren goiti-beheiti horiek «ekonomikoki» Arantzako Udalarentzat «eragin handia» dutela kontatu du Pikabeak. «Herri bezala, lana eta familia uztartzeko 1-3 urte bitarteko hau-

rrentzako zerbitzua bermatzea ezinbertzekoa eta hagitz garrantzitsua iruditzen zaigu», azaldu digu. Zerbitzuari «segida» eman nahi diotela gaineratu digu, «baina aldi berean, haur gutti diren urteetan zerbitzua aitzinera ateratzeko



Nahia eta Mikel Pelle Ttikiko haurrak, tartean Amaia hezitzailea. TTIPI-TTAPA

Haur kopurua Pelle-Ttikin

Ikasturtea	Haurrak Arantzaz (1-3 urte)*	Pelle-Ttikin
2006/2007	13	8
2007/2008	13	6
2008/2009	9	4
2009/2010	14	3
2010/2011	20	9
2011/2012	16	9
2012/2013	18	9
2013/2014	20	9
2014/2015	20	9
2015/2016	17	8
2016/2017	18	6
2017/2018	13	7
2018/2019	11	4
2019/2020	12	4

*Datuak gutti goiti-beheitikoak dira

Udalak gastu handia» egin behar izaten duela oroitarazi du.

Inbertsio handia

Irailetik uztail hondarrera egoten dira zabalik Pelle-Ttikiko ateak. Tarte horretan, astelehenetik ortziralerara, 09:00etatik 13:00etara edo 14:30era bitarteko zerbitzua eskaintzen dute, 1 eta 3 urte bitarteko haurrentzat. 13:00 arte ari direnek haur bakoitzeko 130 euro ordaintzen dute eta bazkaldu eta 14:30 arte gelditzen direnek, berriz, 150 euro bakoitzeko. Horren harira, zenbakiak atera ditu Pikabeak: «Arantzako Udalak urtean 18.932 euro ordaintzen dizkio Dindaia Fundazioari, eta haur bakoitzeko diru-sarreraren urtean 1.430 bat eurokoa dela kontuan hartuz, argi dago esfortzu ekonomiko handia dela». Pelle-Ttikin apuntatzen diren haur kopuruaren arabera, «gastua aunitz aldatzen da: zenbat eta haur gehiago izan, orduan eta errazagoa da zerbitzua mantentzea. Udalarentzat sarrerak ez dira berdina zortzi haurrekin edo laurrekin».

Bizirik segitzen badu hori «bertatik pasatu diren haurren gurasoei eta Udalaren eginaharari esker» izan dela adierazi du zinegotziak. Ez hori bakarrik: «Pelle-Ttikitik pasatu diren haurrak eta gurasoak gustura sumatzen dira zerbitzuarekin eta hori baloratzekoa da». Herrian haurrak badirela ere gaineratu nahi izan du: «goiti-beheitiak izaten dira, baina azken urteotan haurrak badira».

Sorreratik Pelle-Ttikiren aldeko apustu horri eutsi dio Udalak, baina gastu ekonomikoa orekatzeko asmoz,

«UDALAK ESFORTZU EKONOMIKO HANDIA EGITEN DU»

JOSEBA PIKABEA, ZINEGOTZIA

bertze proposamen bat ere egin zuten Udaletik aitzineko agintaldian: «ikasturte honetarako aurreikusitako matrikulen kopurua ttikia zela ikusita, aitzineko Udalak Pelle-Ttiki eta jubiloteka zerbitzua elkarrekin eskaintzeko proposamena egin zuen». Astean, zenbait egunez 1 eta 3 bitarteko Arantzako haurrak eta 65 urtetik goitiko aranztar jubilatuek elkartu eta «belaunaldien arteko harremanak lantzea aberasgarria zela pentsatu zuten». Martxo aldera bilera irekia egin zuten horren inguruan, baina azkenean, bere horretan gelditu zen.

Ikasturte honetan lau haur

Kontuak kontu, eta zerbitzua- ren etorkizuna herrian solaserako gai izan bada ere, lehenengo bidetik, haurrek hasi dute aurtengo ikasturtea Pelle-Ttikin. Zerbitzuak haurrakirailean edo ilbeltzean hasteko aukera ematen du eta batzuk hasiak eta bertzeak agudo bilduko dira taldera: lau guztira. Lehendik haur eskolan zebilen Nahia Elizalde Bertizekin batera, Mikel Barrenetxe Alzuri hasi da Pelle-Ttikin; urrian Haritz Iturria Galfasoro hasiko da eta ilbeltzean Argia De Rueda Alberdi. Eguerdira bitarteko tarteak pasatuko dituzte Pelle-Ttikin, Koldobike Gorostiza Uriguen berezko hezitzailearen ordezkapena egiten ari den Amaia Loiarte Lopez hezitzailearen ondoan. Emmi Pliklerren metodologian oinarrituta egonen dira, hau da, hezitzailea bidelagun dela, hauraren autonomia lortzeko bidean mugimendu askea eta metodoa landuz.

Hori izanen da ikasturte honetako martxa. Etorkizunera begira, «epe luzeko aurreikuspenik ezin dela egin», dio Pikabeak. «Zerbitzua izatea hagitz positiboa dela uste dugu eta Udaletik zerbitzua mantentzeko ahal dugun guztia eginen dugu. Denborak erranen du zergertatzen den. Dena ez dago Udalaren esku».

Pelle-Ttikiko gurasoekin solasean



AMAIA APAOLAZA GOENA
PELLE-TTIKIKO GURASO OHIA

«Denok mantentzen saiatu behar genuke»

Hiru seme-alabekin «esperimentzia ona» izan ondotik, «hasieran zaintzarako» zena «gerora haurrak ongi, goxo eta hezteko zerbitzua» dela ikusi du. Lanean ari diren gurasoentzat «beharrezkoa» izateaz gain, «beharra ez izan da ere, zerbitzu egokia» dela uste du. Etorkizunera begira, «haurrak baldin badira, mantendu beharrekoa» iruditzen zaio, baina argi du: «haur gutti dagoenetan Udalak inbertsio handia egiten duenez, gurasook ere mantentzeko ahalegina egin behar genuke».



GOTZON ARENAS SALAZAR
PELLE-TTIKIKO GURASO OHIA

«Eusteko moduko zerbitzua da»


«Arantza bezalako herri ttiki batentzat Pelle-Ttiki izatea izugarritzko zortea da». Hala xe dio bi alabak Pelle Ttikin ibili ondotik. «Oroitzapen goxoak eta politak» ditu eta «alaben heziketarako laguntza handia» izan dela gaineratu du. Etorkizunaz galdetuta, «herrian umeak dauden bitartean eusteko moduko zerbitzua» iruditzen zaio, eta zerbait aldatzekotan «espazio fisikoa» eginen omen luke: «oraingoa murrizta da, handixeagoa hobe litzateke».



MARIA DE RUEDA LEIZA
PELLE-TTIKIKO GURASO

«Zerbitzua ona eta kalitatekoa da»

«Etxean haurra nork zaindu ez dugunontzat zerbitzu ona» izateaz gain, «kalitatekoa» delako, alaba Pelle-Ttikin hasiko du, 2 urterekin, «etxean bezala egoten dira». Adin hori «bertze haurrekin harremanetan hasteko» garaia dela dio: «alabak bertze haurrekin jostetan ari nahi du eta Pelle-Ttikin, aukera izanen du, modu goxoan». Ingurukoak zerbitzuarekin «hagitz kontent» sumatu dituela ere erran digu: «lagunekin harreman polita egiten dute eta eskolan has-tean hori nabaritzen da».



MARIAN LARRALDE MUTUBERRIA
PELLE-TTIKIKO GURASO OHIA

«Zerbitzua haurren hobe beharrez da»

Ez ditu atzenduak Pelle-Ttiki martxan paratzeko «ilusioz» egindako auzolanak, nahiz eta «zer izanzen zen ez jakinda, hasieran kezka» sentitu zuela aitortu. Baina ez da damutu hartutako erabakiaz. «Hagitz oroitzapen onak ditut eta eskolako egokitzapen prozesuan aldea sumatu nuen». Bere irudiko, «jendea ez da kontziente herrian dugun zerbitzuaz». «Haurren hobe beharrez» delakoan dago eta «berriz egin beharko balu, ez nuke zalantzarik izanen».



MIKEL LEIZA ETXEBERRIA
PELLE-TTIKIKO GURASO OHIA

«Erabiltzen ez bada desagertu daiteke»

Herrian halako zerbitzua izatea «hagitz garrantzitsua» iruditzen zaio eta bere kasuan, «seme-alabak zaintzeko eta hezteko eta bertze haurrekin harremanetan egoteko tokia» izan da Pelle-Ttiki. Etorkizunera begira «denon artean zerbitzua mantentzen saiatu» beharko luketela uste du: «jendeak haurrak etxean uzten baditu eta jaiotze-tasa jaisten bada, desagertu daiteke». Hori saihesteko, Udalari «nola-bait zerbitzua mantentzeko» eta gurasoei «zerbitzua erabiltzeko» eskatu die.



SONIA ITURRIA MITXELENA
PELLE-TTIKIKO GURASO OHIA

«Etorkizuna ez dut hagitz ziurra ikusten»

Ongi ezagutzen du Pelle-Ttikiko martxa, «sortu eta antolatu zenetik» hor ibilia baita. Hiru seme-alabak Pelle-Ttikin izan ditu eta «hagitz kontent» egon direla eta «esperimentzia positiboa» izan dela dio. Zerbitzuari esker «haurrek goizetan lagunekin goxo egoteko» aukera izan dutela adierazi du eta «zaintza lanak egiterakoan lasaitasuna» eskaini diela. Etorkizuna, ordea, «ez dut ziurra ikusten. Aitzinera egiten du, baina beti ume kopuru justuarekin».

Eskualdeko 5.535 ikaslek hasi dute ikasturtea

laz baino 153 ikasle gehiago hasi dira Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Urumealdea eta Xaretako ikastetxeetan

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	0	0	220	4	0	492
Almandoz IP			3			2
Amaiur IP			7			18
Arizkun IP			9			24
Arraioz IP			9			16
Azpilkueta IP			12			7
Baztan Ikastola			59			148
Elizondo IP			68	4		158
Erratzu IP			13			29
Gartzain IP			4			6
Irurita IP			18			45
Lekaroz IP			6			5
Oronoz IP			7			23
Ziga IP			5			11
BERTIZARANA	0	0	24	0	0	43
Legasa IP			12			24
Narbarte IP			12			19
BORTZIRIAK	10	16	270	27	25	537
Arantza IP			22			43
Bera (Ricardo Baroja)			69			143
Bera (Labiaga Ikastola)			42			108
Bera (Jesusen Bihotza)	10	16		27	25	
Etxalar IP			24			54
Igantzi IP			21			41
Lesaka (Irain IP)			58*			77
Lesaka (Tantirumairu)			34*			71
LEITZALDEA	0	0	131			270
Areso IP			6			18
Goizueta IP			19			43
Leitza IP (Erleta)			106			209
MALERREKA	0	0	153	7	1	313
Doneztebe (S. Migel)			102	7	1	199
Ituren IP			22			50
Saldias IP			7			6
Sunbilla IP			22			58
XARETA	87	158	103	142	242	166
Sara (Publikoa)		19			20	
Sara (St. Joseph)		34		11	52	
Sara (Oihain Ikastola)			40			77
Senpere (Publikoa)	30	68		37	105	
Senpere (Amotz publ.)	27			48		
Senpere (Zaldubi ikas.)			51			60
Senpere (St. Joseph)	30	37		46	65	
Urdazubi-Zugarramurdi			12			29
Guztira	97	174	901	180	268	1.821

*2 urteko ikasleak barne.

	BIGARREN HEZKUNTZA			BATXILERGOA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	30	0	321	0	0	139
Lekaroz	30		321			139
Elizondo						
BORTZIRIAK	21	13	332	0	0	112
Arantza IP			8			
Bera (Toki Ona)	21	13	280			112
Bera (Labiaga Ikastola)			44			
LEITZALDEA	0	0	228	0	0	95
Goizueta			10			
Leitza (Amazabal)			218			95
MALERREKA	0	0	229	0	0	0
Doneztebe (Mendaur)			229			
XARETA	180	113	12	0	0	0
Senpere**	180	113				
Urdazubi-Zugarramurdi			12			
Guztira	231	126	1.122	0	0	369

HEZIKETA ZIKLOAK							
LHB		OLH		Erdi M.		Goi M.	
A	D	A	D	A	D	A	D
5		40		105		21	
	5		40		44		21
0		0		33		36	
				33		36	
0		0		0		0	
0		0		0		0	
0		0		0		206	
						206	
5		40		138		263	

BIGARREN HEZKUNTZA

+%7,2

BATXILERGOA

+%17,5

HEZIKETA ZIKLOAK

+%1,2

**Senperen Bigarren Hezkuntzako datuak Arretxea Kolegiokoak dira eta Heziketa Zikloko datuak Laborantza Lizeokoak.

Beratik Behobiara zikloturista martxa egingen da igandean

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak antolatuta, Irungo bizikleta bestan parte hartzeko aukera emanen du

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak antolatuta, Beratik Behobiara Ederbidea Martxa Zikloturista ez konpetitiboa egingen dute irailaren 22an. 2017an Sunbillan egin zen lehenbiziko edizioa eta aurtengoa izanen da bigarrena. Igandean 10:00etan abiatuko dira Toki Ona kiroldegitik eta 12:00etatik 14:00etara Irunen egingen den bizikleta bestan parte hartzeko aukera izanen dute parte-hartzaileek. 16:00etan Berara bueltan abiatuko dira. Izen-ematea www.rockthesport.com

rockthesport.com webgunean egin daiteke irailaren 18ra bitarte. Dortsalak egun berean hartu beharko dira Toki Ona kiroldegian 08:30etik 09:45era. Proban 8 urtez beheitikoek ere parte har dezakete. Itzulera-rako, behar dutenek eta izena ematen dutenek doako lantzeraz bitzua ere izanen dute. Irunen egingen den Bizifestan parte hartuko du Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoak eta bertan egonen den ferian aurtentzen karrikaratu duen mapa zikloturista eskuratzeko aukera ere izanen da.



AMAIJA JORAJURIA

Nafar Kronoeskaladen finala Ibardinen

Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herriaren arteko kaxkoak igoz, presoen aldeko Nafar Kronoeskaladak egiten ari dira. Azkenekoa Ibardineko igoera izanen da, urriaren 19an. Orain arte bezala, elkartasun eta bizikletaren besta handia espero dute antolatzaileek. Argazkia Ibañetako proban ateratakoa da.

Berako XXVII. mendi bizikleta itzulia antolatu dute irailaren 29rako

TTIPI-TTAPA

Gure Txokoa elkarteak antolatutako Berako XXVII. mendi bizikleta ibilaldia egingen dute irailaren 29an, igandean 09:30ean hasita. Irteera eta helmuga puntua Iamotenean izanen da.

Helduek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 34 kilometrokoa luzeena eta 18 kilometrokoa laburrena. Federatuek eta Gure Txokoako bazkideek 5 euro ordaindu beharko dute izena ematean eta federatu gabekoek eta Gure Txokoako bazkide ez direnek 10 euro.

Ibilbide ttikia ere izanen da, 10 bat kilometrokoa, 14 urtez beheitiko neska-mutikoei zuzendua, Postas eta Bera artean (10 km). Txirindulariak Postasera hurbiltzeko laguntza beharko da. Hauek 5 euro ordaindu beharko dituzte izena ematean eta gurasoen baimena aurkeztu beharko dute (Aloña farmazian edo Katea Bike dendan eskura daiteke



Haur eta helduek parte har dezakete.

papera) edo adin nagusiko arduradun batek lagunduta parte hartu. Boluntarioak ere beharko ditu Gure Txokoako proba hau behar bezala joan dadin, beraz, laguntzeko prest bazaudete, jarri elkartearekin harremanetan.

Futbol denboraldia hasi da

Gipuzkoako ligetan ari diren Gure Txokoako futbol talde gehienak hasiak dira ligan: nagusiak, jubenilak eta kade-teak aritu dira asteburu honetan eta infantilek beranduxeago ekinen diote denboraldiari.

Bertso-jaialdia izanen da Kultur Etxean larunbatean

Berako Euskara Batzordeak, Nafarroako Antzoki Sarearen, Udalaren eta Kultur Batzordearen laguntzarekin bertso jaialdia antolatu du irailaren 21ean, larunbatean 19:00etan Kultur Etxean. Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran, Maddalen Arzallus eta Josu Sanjurjo bertsolariak ariko dira kantari, Ainhoa Larretxea gai-jartzaile dutela. Sarrera 3 euro kobratuko dute.

Denboraldia hasi dute Katakuri herri ostatuan

Denboraldiari edo ikasturteari ekiteko *Berpiztu Eguna* ospatu zuten irailaren 14an Katakuri herri-ostatuan. Hasteko poteoa egin zuten Illekuetako bestetara joateko eta *47ak herrian, 11/13 makroepaiketarik ez!* elkartasun argazkia atera zuten. Kurkuma, Joseba B Lenoir Trio eta Joseba Irazoki eta Lagunak taldeek kontzertua eskaini zuten emanaldia borobiltzeko.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera



Jose Luis Echechipia organo-jole aditua izanen da gidari. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Elizako organoa ezagutzera emateko ekintzak asteburuan

Ginkana, mahai-ingurua, bisita gidatua eta kontzertua izanen dira Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartearen eskutik

AITOR AROTZENA

Nafarroako Gobernuak antolatutako *Haizea arte bihurtua* organo zikloaren barrenean hainbat ekitaldi egingen dira irailaren 20an eta 21ean herrian, Udalaren, Lesakako Merkatarien Elkartearen eta berriki sortu den Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartearen laguntzarekin.

Urte pare bat badira lanean hasi zirela gure herrian dagoen altxor preziatu bat ezagutarazteko asmoz. «Horretarako, Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartea sortu dugu, irabazi asmorik gabekoa eta helburu nagusia du Roqués organoaren egoera zaintzea eta aberastasun historiko, kulturala eta patrimoniala ezagutaraztea», diote elkartetik.

Hasieratik lankide hurbila izan dute ANAO (Asociación

dute de Amigos del Órgano) eta haren laguntza eta aholkularitza izan dute. Izan ere, San Martin elizak organo erromantiko ederra gordetzen du, kultura-intereseko ondasun izendatua, baina berritze handia behar duena. Elkartek hainbat ekitaldi egin nahi ditu ahalik eta laguntza gehien lortzeko, organoa Lesakako kultura eta formakuntzako pizgarri nagusia izateko asmoarekin.

Ginkana

Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartek Lesakako Merkatarien Elkartearekin batera, ginkana bat antolatu du, herriko bi ikastetxeetako ikasleei zuzendua. Organoa bera eta haren historia aditzera ematea da helburua, baita irailaren 20 eta 21erako antolatu diren organoari buruzko

ekitaldien berri ematea ere. Merkatariek euren erakuslelhoetan agerian jarriko dituzte organoari buruzko hainbat testu eta galdera; ikasleek erantzunak bilatu beharko dituzte testu horietan. Ongi erantzuten dutenen artean hiru bonu banatuko dira, eta elkarteko edozein dendatan erabili ahal izanen dituzte.

Egitaraua

Irailaren 20an, ortziralean, 19:00etan, Harriondoa Kultur Etxeko komentuan mahai-inguru bat izanen da organoari buruzko kultura proiektuaz. Bertan izanen dira José Luis Echechipia, organista eta ANAOk lehendakariordea eta Gabi Igarzabal, elkarteko lehendakaria. *Haizea eta ura* dokumentalaren laburpena eskainiko dute, organoarekin eta haren historiarekin zerikusia duten irudiak eskainiz. Dokumentalaren zuzendari artistikoa eta gidoilaria José Luis Echechipia da eta zuzendari teknikoa, Txuma Huarte. Ekitaldiaren bukaeran, Lesakako Merkatarien Elkartek sariak banatuko dizkie *Ezagutu Lesakako Roqués Organoa* ginkanako irabazleei.

Irailaren 21ean, larunbatean, 12:00etan organoari buruzko bisita gidatua emanen du José Luis Echechipiak. Echechipiak berak dioenez, ekitaldi interesgarri bezain entretenigarria izanen da. Bisita gidatuaren barrenean irudiak erakutsiko dira, organoaren barrenean piezak nola mugitzen diren ikusteko. José Luis Echechipiak kontzertua eskainiko du, 19:30ean, Nafarroako organorako musika zirkloaren 35. edizioaren barrenean eta bertan Lesakako Abesbatzak ere parte hartuko du.

Bortz ikastolek Frainera mendi itzulua igandean

2017ko Nafarroa Oinezen ondorioz Frain inguruan landatutako Oinez Basoa ikusteko Frainera mendi itzulua antolatu du irailaren 22an Tanti-rumairu ikastolak. Herriko ikastolakoekin batera, Berako Labiaga, Baztan, Sarako Olhain eta Baigorriko ikasle, irakasle eta gurasoak espero dituzte igandean, naturaren inguruan harremanak sendotuz, bortz ikastolek bat egitea baita helburua. 11:30ean Frainen ekitaldia eta hamaiketako eskainiko dute. Ikastolatik abiatuta bi aukera izanen dira joateko: 09:30ean oinez bide osoan eta 10:30ean autoz Piedade ingurura hurbildu eta azken zatia oinez egitea.

Arrano elkartearen eguna ospatuko dute larunbatean

Arrano elkartearen eguna ospatuko dute lehen aldiz irailaren 21ean, *Kabi bat, hameka hegada* goiburupean. Larunbatean 09:00etan Agiñara mendi martxa egingen dute. 13:00etan triki-bertsu-poteoa eta *Zubitik Zubira Presoak etxera!* ekimena. 14:30ean zikiro-jatea izanen da (bazkideek 20 euro eta bazkide ez direnek 25 ordaindu beharko dute) eta ondotik kantaldia. 15:30ean Haur Txokoa izanen dute elkartean, karaokea, txotxongilo tailerra eta jokoekin. 19:00etan Hor dun koxka trikitixa taldearekin dantzaldia, 22:30ean Kalera taldearekin rock kontzertua eta gauerditik aitzinera Endara DJa.

INGENIARITZA ELEKTRIKOA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450

BOLETIN INDUSTRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Usategietako tradizioaren besta igandean Lizarrietan

Etxalar-Sara hitzarmena berretsiko da eta egitarau zabala prestatu dute bertze urte batez

IRUNE ELIZAGOIEN

Irailaren 22an izanen da Usategietako tradizioaren besta eta egun guziko egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Igande goizean, 10:00etatik 13:00etara, artisauen erakusketa eta salmenta, usazaleen paleta egite erakustaldi partehartzailea, haurrentzako puzgarriak eta hamaiketako (taloak) izanen dituzte. Goizean etxalartarren eta saratarren arteko botaluze pilota partida ikusteko aukera ere izanen da. 11:30ean Usategietako maki-la (karrote) botatzeko munduko V. txapelketa jokatu da eta ondotik nahi duenak paleta botatzeko aukera ere izanen du.

Hitzarmena

12:30ean 2011ko irailaren 4ko Sara eta Etxalar arteko hitzar-



Karrote botatze txapelketa izanen da.

menaren sinadura berretsiko dute bi herrietako alkateek, Etxalarko Migel Mari Irigoienek eta Sarako Battit Labordek. 14:00etan aretxe haragia bazkaltzeko aukera izanen dute Lizaletako zelaian. Bazkarirako txartelak salgai egonen dira Elutsan eta Herriko ostatuan irailaren 18ra arte (25 euro). Eguerdian eta arratsaldean Joxe Angel akordeoilariak giroa alaituko du eta egun osoan animazioa izanen da.

Mila bisitari baino gehiago pasa dira Turismo Bulegotik

Aurtengo udan ere mila lagun baino gehiago pasatu dira Etxalarko turismo bulegotik. Valentzia, Madril, Bartzelona, Gipuzkoa, Alikante eta Zaragozatik etorri da jendea batez ere. Frantzia, Holanda, Alemania, Ingalaterra, Belgika eta Estatu Batuetatik ere gerturatu dira turistak. Hauetako aunitz, beraien lurraldeko beroa saihestu asmoz etorri dira eguraldi freskoaren bila. Aunitzek interes berezia azaltzen dute euskararen inguruan, baita bertako gastronomian ere.

Mugimendu gutti Usategietako lehen enkantean

Irailaren 7an egin zen Usategietako postuen lehen enkantea. Ehiztari gutti bildu ziren eta mugimendu gutti sumatu zen. Horren erakusgarri, 21 postuetatik bakarrak izan zuen hobekuntza (21. postua 1.690 eurotik 1.800era igo zen) eta bertze sei hutsik gelditu ziren. Gainerakoak hasierako prezioan eman ziren. Lehen enkantean emandako 15 postuetatik 29.495 euro jasoko ditu Herriko Etxeak eta hasiera batean 34.940 biltzea espero zuen. Irailaren 13an zuten sexta emateko aukera.



IBON ERRAZU

Uxue Iturria eta Leire Iribarren Zarautzen

Beraien bigarren txapelketan parte hartu zuten Etxalarko Uxue Iturria eta Leire Iribarren trikitilariak irailaren 4an Zarauzko XXXIX. Trikitilari Gazteen Txapelketan. Trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina joz lan txukuna egin zuten Gipuzkoako bertze zazpi bikoterekin batera.



IRUNE ELIZAGOIEN

Autobus geltokia eta oinezkoen pasabideak

Ikasturtea gogotsu hasteko, herri sarrerako aparkalekuan, autobus geltoki dotorea izanen dute Berako Toki Ona instituturako joateko autobusa hartu behar duten gaztetxoek. Bertzetik, segurtasuna hobetuko duten oinezkoen pasabide berriak ere erabilgarri daude herrian.

Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu aitzinak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

USOA
Nekazari kooperatiba

ORAIN
GASOLINA ERE

T. 948 635 214 ETXALAR



Lehen aldiz egin den mendi duatloiko podium osoa. OSKAR TXOPERENA

Mendi duatloiaren lehen edizioa bikaina izan da

128 kirolariren artean binaka Asier Arburua eta Enaitz Roteta nagusitu ziren eta bakarka Eneko Gurrutxaga eta Maria Gomez

TTIPI-TTAPA

Lehenbiziko aldiz antolatu du aurten Biltoki Elkartek mendi duatloi proba eta konpetizioak eskatzen duen aparteko exijentziari aurre egiteko gauza izan zela erratan ahal da, zalantzarik gabe. Euria zegoen iragarrita baina eguraldi ezin hobeak aurkitu zuten Igantzira hurbildu ziren kirolariek, freskoa eta ateria. 128 kirolari aritu ziren lehian, batzuk lasterka, bertze batzuk bizikletaz, eta bi kirolean aritu zirenak ere bizkorki, bakarka alegia. Garai batean zeharkaldiak egiten zuen zirkuituaren ia-ia

ibilbide bera egin behar izan zuten txirrindulariek, bi itzulirekin 18 kilometro osatuz. Nahiz eta leku beretsuetatik ibili, motzagoa izan zen lasterkariaren ibilbidea, zortzi kilometro denetara egindako bi itzulietan.

Sailkapenak

Binaka aritu zirenen artean Asier Arburua eta Enaitz Roteta izan ziren azkarrenak (01.36.22), sei minutuko aldea ateraz Aitor Begino igantziarrak eta Juan Mari Indakoetxea lesakarrak osatutako bikoteari (01.42.35). Sunbillako Xabier



Edurne Huitzi eta Maria Yanci.

Iratzoki eta Iñigo Arrieta izan ziren hirugarrenak (01.46.25).

Bakarka aritu zirenen artean, berriz, Villabonako Eneko Gurrutxaga (1.40.07), Mutrikuko Xabier Astigarraga (1.43.46) eta Villabonako Jon Aperribai (1.45.18) izan ziren, hurrenez hurren, hiru lehenbizikoak. Eskualdeko lehenbizikoa Lesakako Iker Telletxea izan zen, zortzigarren (1.51.28). Mikel Urtxegi igantziarra hamaikagarren izan zen (1.52.57). Ema-kumezkoen artean, Maria Gomez (Fuenmayor-Errioxa) izan zen bizkorrena (2.16.31) eta Zornotzako Jessica Hernandez (2.26.25) eta Sopelako Laura Perez (2.26.49) bizkaitarrek osatu zuten podiuma.

Sari banaketa, sailkapen orokorreko mailoten banaketa eta hamaiketako izan ziren ondotik, giro bikainarekin. Herriko bi neskek, Edurne Huitzik eta Maria Yancik elkarrekin erreleboka osatu zuten ibilbidea eta hauek ere sari berezia jaso zuten.

Baratzondo Elkartaren eskutik ekitaldiak udazkenean

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Udazkeneko egutegia prestatzen hasia da Baratzondo Elkarteko junta. Hasteko, urriaren 5ean Oñatira hurbilduko dira, bertako azoka aprobe-txatuz. 08:00etan heretik aterako dira eta goiz osoa emanen dute azoka bisitatzen. Itziarren bazkalduko dute etxerakoan. Irailaren 27ra bitarteko epea izanen da izena emateko eta bazkide ez direnak ere joaten ahal dira.

Urriaren 12rako, berriz, Bazkideen Eguna antolatu dute. Baratzondon izanen dute bazkaria, 14:00etan, elkartaren egoitzan. Urriaren 2a baino lehen eman beharko da izena.

Azkenik, udazkenean egin ohi duten mus eta partxis txapelketa hastera doala zabaldu dute. Bazkide ez direnak ere aritzeko modua izanen dute, bertako batekin beti ere. Sari ederrak izanen dira eta, honetan parte hartzeko ere, urriaren 2an bukatuko da epea.



Baratzondon otordu batean. OSKAR T.

EDERKI

tailerra

CITRÖEN

ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa

PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Cristaleria

BIDASOA

Tel. 943 61 30 63

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN

info@cristaleriabidasoa.com

73 ikaslek eta 13 irakaslek hasi dute ikasturtea eskolan

Hiru urteko borts ikasle hasi dira eskolan eta lau urtekoekin batera daude gelan

NEREA ALZURI

Joan den irailaren 5ean ikasturtea abiatu zuten eskolan. Hiru urteko borts ikasle hasi dira: Kattalin Ordoki Hualde, Hegoi Iparragirre Zelaieta, Alaia Bergara Cabodevilla, Oier Taberna Laskano eta Aratz Leiza Iturria. DBHko 2. maila akituta bederatzi ikasle joan dira Berako Toki Ona institutura eta herriko eskolan guztira 73 ikasle izanen dira.

Haur Hezkuntzan bi talde daude, hiru urteko borts ikasle berriak eta lau urteko zazpiak elkarrekin daude, eta borts urteko hamar ikasleak, berriz, bertze taldean. Horrez gain, aipatzekoa da Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila ere banatuak izanen dituztela.

Iaz baino bi talde gehiago

Ikasturte honetan joan den urtean baino bi talde gehiago dituzte eta horrek zuzendaritza ordu gehiago eta idazkaria izateko eskubidea ematen dituenek, eskolaren kudeaketarako baliabide gehiago izanen dituztela adierazi digute eskolatik.

Irakasleei dagokionez, 13 irakasle osatzen dute klastroa. Irakasle batzuk lanaldi murriztuarekin egoteak ekarri du iaztik aurtengora irakasle kopurua igatea. Lantaldea ikusita, aurtun esleitu dizkieten giza-baliabideekin gustu-



Eskolako rokodromoa itxuraberritua.

ra daudela jakinarazi digute eskolatik.

Berritzeko lanak

Udako oporraldian, berritze lanak egin dituzte eskolan. Bertzeak bertze, gimnasioko eta pasabideko leihoak aldatu dituzte. Ikasturtea hasi aitzinetik auzolanean eskola garbitu zuten eskolatik eskerrak eman nahi izan dizkiete Udolari. Horrez gain, aipatu, patioan aitzineko ikasturtean estreinatutako rokodromoa pintatu ondotik, itxura-berritua gelditu dela.

Ateraldiak

Ikasturte honetan DBHkoek ikas-bidaia izanen dute. Jar-duera honek ilusio handia sortzen du ikasleen artean baina nora joanen diren oraindik zehaztu gabea omen dute. Bertzetik, hirugarren zikloko ikasleek eskiaren kanpainen parte hartuko dute eta heldu den urte hasieran eskiatzera joanen dira.



ENEKO SARRIAS

Inguruko babesa jaso du Ziluagak

Jende andana bildu zen irailaren 7an 11/13 auzian auzipetutako Haizea Ziluaga Larreategiri babesa adierazteko. Kalejiraren ondotik, bertsoek, dantzak, elkartasun keinuek eta kantak osatu zuten ekitaldi hunkigarria. Ondotik, ehun lagunetik goiti bildu ziren frontoian egindako afarian.

Pilota eskolan apuntatzeko epea zabalik

Ekaitza Elkartetik jakinarazi dutenez, urriaren 7an hasiko da ikasturte honetako pilota eskola. Norbaitek parte hartu nahi badu, irailaren 24a baino lehen eman beharko du izena. Entrenamenduak astelehenean izanen dira.



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

aterpe
albergea jatetxea ostatua
T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net

Igantzikoko bestak 2019

egitaraua



Irailak 21, larunbata

09:30ean gosaria Ziobin. **10:00etan** plater-tiroketa Ziobin. **12:00etan** herriko pilota txapelketako finalerdiak eta finala. **20:00etan** herriko dantza taldearen emanaldia.



Irailak 22, igandea

10:00etan karrika buelta txistularekin. **12:00etan** XVI. gazta lehiaketa. **12:00etan** ardo dastaketa. **18:00etan** karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin. **19:00etan** gazta eta opil dastaketa Iñaki eta Joxe Agustin trikitilarekin.



Irailak 27, ortzirailea

17:00etan goitibehera txapelketa. **20:00etan** altxaferoa Elutxa txaranga-rekin. **Ondotik** karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin, gaiteroek alaituta. **00:00etatik 04:30era** Trikidantz taldearekin dantzaldia.



Irailak 28, larunbata

10:00etan karrika buelta txistularekin **12:00etan** haurrentzako karrika buelta, el-zeburrumba eta entzierra. **Ondotik** karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin. **12:00etan** haur eta helduendako toka txapelketa frontoian. **18:00etan** Haurren froga konbinatua. **Segidan**, Euskal Herriko emakumezkoen lokotx biltze txapelketa, Nafarroako arpina txapelketa mistoa eta herritarren arteko desafioa. **20:00etatik 22:00etara** Burrumba elektropatxaranga. **22:00etatik 23:30era** Herenegun taldearekin dantzaldia. **00:00etatik 01:00era** Betizuak zezen plazan, Burrumba elektropatxaranga alaituta. **01:00etatik 05:00etara** Txingudi DJ.

GORA SAN MIGELAK!
borzruda
INPRENTA - HOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

OKILA
zurgindegia
• tarimak, leihoak, ateak, eskailerak...
• obretako lanak orokorrean
Lander Sein
Mikel Arburua
On egin janak eta kalterik ez edanak!
607 88 39 68 • lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 • IGANTZI

ONGI PASA
BESTAKI!
Ingurumen Zerbitzuak
ezpala
• PINADIEN BALORAZIOAK
• LUR NEURKETAK
• KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
• INGURUMEN TXOSTENAK
OROKORREAN
ANDRES ZELAIETA ELTZAURDIA
IGANTZI - LEGASA • T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

LA VILLA
Ostatua - Jantetxea - Igantzi
• Eguneko menua
• Asteburuko menua
• Menu bereziak
• Paellak
• Pintxoak
• Razioak
• Bokatak
• Plater konbinatuak
• Kaxolak
Karrika Nagusia, 14 • IGANTZI
ERRESERBAK: T. 666 455 124

egitaraua



Irailak 29, igandea

09:30ean karrika buelta txistulariekin.
10:00etan karrika buelta ezpata-dantzari eta txistulariekin. **11:30ean** meza nagusia: Igantziko abesbatzak abestuko du eta ondotik bandera arbola doinuari dagokion ikurrin agurra dantzatu eta ezpata-dantzariak eta dantzariak saioa eskainiko dute. **17:00etan** dantza luzea Foru plazan. **17:30ean** afizionatuen arteko pilota partidak: Oskoz eta Apezetxea, Landa eta Agirreren kontra eta Aldabe eta Canabal, Barbajero eta Iruritaren kontra. **20:00etan** muxikoak Foru Plazan. **21:30ean** Cazahuetes mariatxiak.

Irailak 30, astelehena

10:00etan karrika buelta txistulariekin.
11:00etatik 13:00etara haurrendako puzgarriak frontoian. **11:00etan** haurrendako animaliak zezen plazan. **12:00etan** betizuak zezen plazan Elutxa txarangak alaituta. **14:00etan** haurrentzako herri-bazkaria. **14:00etan** bertso-bazkaria Iker Zubeldia eta Julio Sotorekin. **Bazkalondoa** Elutxa txarangak alaituta. **Ilunbarrean** gazteen eskutik Poteo Xtreme. **15:00etatik 18:00etara** haurrendako puzgarriak frontoian. **19:00etatik 20:30era eta 22:00etatik 00:00etara** Elutxa txaranga (Gaixoa ni).

OkaNe

BERTAKO HARAGIA eta
ETXEKO URDAITEGIA

Ordutegia: 09:00-14:00 / 16:00-20:00
(GUTZIA ETA PRODUKTU BEREZIAK ERE BADITU GU)

Kanttonberri 12 · BERA · T. 948 630 018



ZUMARBEL

creaciones metálicas

Igantzi (Navarra)

948 63 74 11

ONGI PASA BESTAK



Lehen A.T.M. S.A

Berrizaun 25,

31790 IGANTZI

T. 948 63 74 11

@ info@zumarbel.es

www.zumarbel.es



***Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei***

Herriko ordezkaritza izan da Erroko artzainen egunean

Urtetik urtera jausten ari da kopurua, baina hainbat lagun joan ziren irailaren 7an, alkatearekin batera

MAIDER PETRIRENA

Ameriketan ibilitako euskal artzainek beraien urteko egun haundia Erron ospatu zuten irailaren 7an, egitarau zabalarekin. Nahiz eta urtetik urtera ospakizun honetara joaten den herritarren kopurua jausten ari den, aurtengoan ere ordezkaritza ederra joan

zen Sunbillatik, Amets Inda alkatearekin, eta egun ederra pasatu zuten.

Aipatzekoa da heldu den urtean euskal artzainen besta eguna gure ingurura bueltatuko dela, Urdazubira. 2010ean Sunbillan egin zen ospakizuna, herritik hainbat eta hainbat lagun joan baitziren.



Ameriketan ibilitako artzainen besta izan ziren herritarrak. AMETS INDA



ARGAZKIAK: AIITOR IBARRA ETA MAIDER PETRIRENA

180 txirrindulari mendi bizikleta itzulian

Mendi bizikleta ibilaldia egin zen irailaren 8an eta guztira 180 txirrindularik parte hartu zuten, igande goizeko euri-langarrari aurre eginez. Zozketak ere egin ziren. Oparirik potoloena bizikleta batena izan zen eta Hondarribiko Aitor Etxaide Ibarluzea suertatu zen irabazle.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Iker Mariezkurrena Kontxan garaile Hondarribiarekin

Iker Mariezkurrena Imaz herritar arraunlariak Kontxako Banderan parte hartu zuen Hondarribiko arraunlari taldearekin eta bandera irabaztea lortu zuen. Bandera garrantzitsu hau irabaztea lortzen duen bigarren aldia da sunbildarrarentzat eta, noski, emaitzarekin hagitz kontent dago. Familiakoak ere Donostian izan zituen Ikerrek animatzeko.

Ikasturte berriarekin ohiko hitzorduak prest liburutegian

Aurten ere ipuin txokoa, irakurle taldea eta sormen literarioen tailerra bideratzeko asmoa du Udalak

MARGA ERDOZAIN

Udako martxa utzita, aste honetan neguko ordutegiarekin hasi dira liburutegia, hau da 17:00etatik 20:00etara. Horrez gain, udazkenara begira liburutegian bultzatutako ekimenak prestatzen ere ari da Udala: ipuinen txokoa, irakurle taldea, sormen literarioen tailerra...

Aurten, bosgarren urtez, ipuin txokoa martxan paratuko du Haizea Loirak. Astartetan egingen dute hitzordua, eta 11:00etatik 12:00etara musikaz eta ipuinaz gozatze-

ko aukera izanen dute 0-3 bitarteko umetxoek eta euren zaintzaileek.

Bertzalde, emakumeek idatzitako lanak abiapuntu izanda, hilero irakurle taldeak bere hitzordua bertan izanen du. Taldekide berriek bertako liburutegian izanen dituzte argibideak.

Hirugarren urtez, liburutegian idazketaren abenturan murgiltzeko aukera ere izanen dute. Marian Lasarte idazleak bideratutako tailerrean parte hartzeko aukera zabalik dago. Argibideak liburutegian.

Office 365 programari buruzko doako hitzaldia

Club de Marketing enpresaren eta Cederna Garalur Elkartearen arteko lankidetzari esker, urriaren 9an Office 365 programari buruzko hitzaldia izanen da Malerreka Mankomunitatearen egoitzan, 16:30etik 19:30era. Solasaldia debalde izanen da.

'That's English' programan matrikula zabalik

Hizkuntza Irakaskuntza Ofizialeko Urrutiko lehenbiziko ingeles ikastaroan parte hartzeko matrikula irailaren 27ra arte zabalik egonen da. Aurten, berrikuntza gisa, A1 eta A2 mailaz gain, C1 titulua prestatzeko ikastaroa ere eskainiko dute.



MARTIKO

Dasta ezazu!

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
 Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com



Doneztebe Futbol Taldeko jokalariek entrenatzen. DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

200 bat jokalarirekin eta berrikuntzekin hasi du denboraldia futbol taldeak

M. ERDOZAIN

Udako atsedenaldiaren ondotik, Doneztebe Futbol Taldeak denboraldia hasi du eta gainera, berrikuntzekin. Bertzeak bertze, entrenatzaile berriak izendatu ditu. Preferenteen mailako entrenatzaileak Ruben Alvarez eta Gari Urroz izanen dira; erregionalen taldean Oier

Beltran eta Ander Andueza ariko dira eta jubeniletan Ganix Zubieta Jon Gurrutxaga. Hain zuzen, hiru talde horiek joan den asteburuan jokatzea zuten denboraldiko lehenbiziko partida. Gainerakoan, guztira hamar talde izanen dira Doneztebe Futbol Taldean eta 200 bat jokalaria.



Errekako eskubaloitako seniorrak. ERREKA KIROL ELKARTEA

Superkopa lortu ondotik ligari begira Errekako eskubaloitako jokalariek

M. ERDOZAIN

«Joan den urteko denboraldi historikoa errepikatzea zaila izanen dela» aitortu arren, «ilusioz» hasi dute denboraldia Errekako seniorren taldeko eskubaloitako jokalariek. Hasiera mugitua izan dute eta ez nolanhikoa gainera, Superkopa irabazi baitute. Atseden har-

tzeko aukerarik izan gabe, kopako partidak ere jokatzen ari dira eta laster liga hasiko dute. 22 fitxa egin dituzte eta tartean, aurpegi berriak eta bajak izan dira. Bertze kategorietan ere taldeak aurkeztuko dituzte; guztira zazpi, eta aste honetan ez bada hurrengoan entrenatzen hasiko dira.



Herri-kiroletarako taldeak osatzen ari dira. IZASKUN ZUBIALDE

Urriaren 12rako Euskararen Eguna antolatzen ari dira

Bazkarirako eta zozketarako txartelak dagoeneko salgai daude eta egutegiak egunean bertan salduko dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA

Herriko gazteak, Udalaren eta Guraso elkartearen laguntzaz, Euskararen Egunerako azken kontuak lotzen ari dira. Urriaren 12an, bigarren asteburuan, zehaztu dute hitzordua eta, hondarreko urteetan bezala, ostiraletik mugimendua izanen dela iragarri dute.

Larunbat goizean, ohi bezala, herri-kirolak jokatzeko asmoa dute. Momentuz taldeak osatzen ari dira eta jokatu nahi dutenek gazteekin harremanetan jarri beharko dute.

Mikroipuin eta ilustrazio lehiaketa

Udalak, bere aldetik, joan den urtean abiatutako ipuin eta ilustrazio lehiaketari segida emateko asmoa du. Oinarriak eta epeak zehazteko lanean ari dira eta laster jakinaraziko dituzte.

II. MIKROIPUIN ETA ILUSTRAZIO LEHIAKETA IZANEN DUTE

Txartelak salgai

Gazteek kantu-bazkarirako eta zozketarako txartelak salgai paratu dituzte. Zozketa-txartelak herriko gazteek salduko dituzte (aurretik eta egunean bertan) eta bazkarikoak Herriko Ostatuan edo okindegian eskuratu ahal izanen dira. Helduek 30 euro eta haurrek 12 ordaindu beharko dituzte. Urriaren 9a, heldu den asteazkenan, arteko epea utzi dute (epeaz kanpo izena ematen dutenek bost euro gehiago ordaindu beharko dituzte).

Egutegiak

Azken urteetan bezala, gurasoek herriko haur eta gazte-txoen argazkiekin osatutako egutegiak egiteko asmoa dute. Horiek, egunean bertan, guraso elkartekoen postuan paratuko dituzte salgai. Era berean, haurrendako zerbait prestatzeko lanean ari dira.

Egitaraua

Azken kontuak lotzeke daudenez, egitarau zehatzaren berri hurrengo aldizkarian (743. zk.) eta *ERRAN. EUS* atarian emanen da.

Jubilotekean izena emateko aukera zabalik

Irailarekin batera, indarberrituta hasi dute ikasturtea jubilotekako kideek. Harremanak sustatzearekin batera, sormena, arreta, irudimena, hizkuntza, orientazioa, erlaxazioa eta bestelako gaitasunak landuko dituzte astean behin. Orain artean bezala, asteartero eskainiko dute zerbitzua ludotekan. Arratsaldeaz, 16:00etatik 18:30etara, bilduko dira, Ramoni Ordoki gidari dutela. Informazio gehiago nahi dutenek edo izena eman nahi dutenek bertara jo dezakete. Esku zabalik hartuko dituzte.

Festetako arbolaren enkantea egin du Udalak

Herriko festetan altxatu eta hondarreko egunean bota zuten arbolaren egurra aprobetxatu nahi dutenei enkanterako deia egin die Udalak. Interesa dutenek udaletxean jakinarazi beharko dute.



Jaiegunetan edota bisitak daudenean talo postu bat paratzea proposatu dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Herrira bisitariak datozenean taloak jateko aukera izateko helburuz, Udalak talo postu bat paratzeko proposamena egin die herritarrei. Interesa dutenek udaletxera jo dezakete eta bertan nola kudeatu zehaztuko dute.



Euskal Artzainak Ameriketara elkarteari bestan izan dira sei herritar

FERMIN ETXEKOLONEA

Sei herritarrek ordezkatu zuten herria Euskal Artzainak Ameriketara elkarteari irailaren 7an, larunbatean, Erron egin zuen ospakizunean: Juanito Babaze, Sebastian Indakoetxea, Inaxio Mari Santesteban, Markos Juanikorena, Tomas Indakoetxea eta Xanti Hualde izan ziren joan zirenak. Guztira 500 lagun inguru bildu ziren.

Artzainek aspaldian ikusi ez zituztenekin egoteko eta garai-ko momentuak oroitzeko aukera izan zuten. Hualdek, herriko atzain eta artisauak Oroz



Hualde Garraldari makila ematen.

Beteluko Marcos Garraldari, bere aitaginarrebakideari, makila bat oparitu zion, izandako bizimodu parekideen eta seme-alaben loturaren adierazle.

Gaztetxoendako bertso eskola urritik aitzinera

Astean behin, ordubetez, bilduko dira udaletxeko ganbaran, Iker Gorosterrazu irakasle dutela

ARKAITZ MINDEGIA

Nafarroako Bertsozale Elkar-teak antolatuta, Lehen Hez-kuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara arteko ikas-leei bideratua, bertso eskola abiatuko dute urrian. Ekaine-ra bitarte eskainiko dituzte eskolak, astean behin, eta Iker Gorosterrazu izanen dute irakasle.

Matrikulazio orriak banatu dituzte, interesa dutenek bete eta tutoreari emateko eta lau egun paratu dituzte aukeran: astelehenetan 17:30etik 18:30era; asteartetan 17:30etik

18:30era; ortzegunetan 16:00etatik 17:00etara eta ortziraletan 16:00etatik 17:00etara. Gehienek aukeratzen duten egun eta orduan bilduko dira, ganbaran. Hiruhileko bakoitza 20 euro ordaindu beharko dute. Ikasturte osorako izena emanez gero, berriz, 60 euro.

Informazio gehiago

Informazio gehiago nahi dutenek Iker Gorosterrazurekin harremanetan jarritz edo i.gorosterrazu@bertsozale.eus helbidera idatziz eskura dezakete.

72 ikaslek hasi dute ikasturtea aurten

Joan den urtean baino hiru ikasle gehiago daude aurten Pulunpa eskolan. Guztira 72 dira aurten: 3 urteko 10; 4 eta 5 urteko 12; Lehen Hezkuntzako 1. zikloan 16; 2. zikloan 22; eta hirugarrenean 12.



Aizkora apustua eta harri-jasotze ikuskizuna larunbatean

ARKAITZ MINDEGIA

Aitzineko TTIPI-TTAPAN iragarri bezala, Joaldunen Eguna izanen dute larunbatean, irailaren 21ean. Egun osoan mugimendua izanen dute.

Egitarauaren barrenean, 13:30ean Xanta Sousa eta Nerea Sorondo Itxaso Onsalo eta Leire Astiazaranen aurka ariko dira aizkora. Ondotik, Xabier Ariztegik *Santxinek* harri-altxatze erakustaldia eskainiko du. Ondotik, Jon Maiak eta Aitor Sarriegik girotutako bazkaria izanen dute. Irailaren 20ra arte salduko dira



Giro ederra izanen dute.

bertso-bazkarirako txartelak. Dena dela, txartelek, hilaren 18tik aitzinera, bortz euroko gehigarria dute. Beraz, orain apuntatzen direnek 40 euro ordaindu beharko dituzte.



MUNDUTIK BEGIETARA

Sein hurrengo lasterketei begira

Izarbeibarren (Nafarroa) jokaturako BTT Maratoian borzgarren postua lortu zuen Seinek. Atsedean hartzeko tarterik gabe, joan den asteburuan Diario de Navarra Openeko lehendabiziko lasterketan izan zen, Peraltan. Hurrengoa Ororbian izanen du hilaren 29an.



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679




Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



ANTZUZELAI S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK





ORBELA
SENDERISMO
ATEBETZAK
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia • Mikel
Tel. 948 450 014 • BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



Hainbat lagun bildu ziren abuztuaren 31n Legarreako leizean egindako hitzorduan. DONAMARIA-GAZTELUKO UDALA

Legarrea leizea memoriaren toki izendatu nahi dute

Bere garaian Udalak egindako eskariarekin bat eginez, horretarako prozedura abiatu du Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Gazteluko Legarrea leizean gertatu zen 1936ko estatu kolpe militarren ondoko krimenik larrienetako bat. Leizera bota zituzten Juana Josefa Goñi Sagardia (38 urte) eta haren zazpi seme-alabetatik sei. Hain zuzen, duela 83 urteko gertakari hura go-

goan, abuztuaren 31n, Sagardia-Goñi familiak urteroko bisita antolatu zuen leizera. Familiako kideez gain, hainbat izan ziren ekimenaren bat egin eta Legarreara hurbildu zirenak, tartean herritarrak eta udal ordezkariak, eta denek elkarrekin argazkia ere atera zuten.

Prozedura abian

2019ko apirilaren 24an Udalak Gaztelun dagoen Legarreko leizeko memoria-gunea Nafarroako memoria historikoaren toki deklaratzeko eta hura Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatzeko prozedura abiatzeko eskatu zuen. Eskaera hori ikusita, Nafarroako Memoriaren Institutuak proposamen bera egin zuen, eta horren bidetik, abuztuaren

SAGARDIA-GOÑI FAMILIARI OMENALDIA ESKAINI DIOTE

29an Nafarroako Gobernuak buletin ofizialean jakinarazi zuen leizea memoriaren toki izendatzeko prozedurarekin hasi dela.

Duela 83 urte

1936an Gaztelun bizi ziren Juana Josefa Goñi Sagardia eta bere sei seme-alabak Legarreko leizera bota zituzten: 16 urteko Joakin, 12 urteko Antonio, 9 urteko Pedro Julian, 6 urteko Martina, 3 urteko Jose eta 18 hilabeteko Asuncion. Aita matxinatutako tropekin joan zenetik, larri bizi omen ziren. Familia desagertu ondotik, gertatutakoa ikeritzen hasi baziren ere, ezin izan zen egiaztatu krimena izan zenik. Inguruan, ordea, aunitzek zuten kontuaren berri, ofizialki inork deus erran ez bazuen ere. 2016an Aranzadiko kideek gorpua lurpetik atera zituztenean egiaztatu ahal izan zen kontakizuna benetakoa zela. Familiako kide guztien hezurdurak ez ezik, haurren oinetakoen kautxuzko zolak ere topatu zituzten, baita botoiren bat ere. Urtebete beranduago, Gazteluko hilerrian lurperatu zituzten amaren eta seme-alaben hezurdurak.



DONAMARIA-GAZTELUKO UDALA

Antzerkia Jauregian

Trokolo antzerki taldearen eskutik, *Bertan kasu egin, edo banoa* antzezlanaz gozatzeko aukera izan zuten abuztuaren 30ean Jauregian. Haur, gazte eta helduak bildu ziren eta hurbildu zirenek eta Klina eta Klin doktoreekin tarte ederra pasatu zuten.



AMAIJA ODRIOZOLA

Giro ederra Artzeko bazkarian

2015ean egin zuten azkena, eta urte batzuetako atsedenaldiaren ondotik, aurrez berriz bazkaria antolatu zuten Artzeko auzotarrek. Irailaren 7an 70 bat lagun bildu ziren mahaiaren bueltan, eta bazkaldu ondotik, auzoko gaztetxoek musika lagun, giro ederra izan zuten.



Joan den urtean bezala, aurtan ere dantzariak euren saioa eskainiko dute. Eskuinean, iazko bestetan, Oier Mitxelenak eskainitako erakustaldia. JAIONE ARIZTEGI



Irailaren 26tik 29ra bestak ospatuko dituzte

Lehenbiziko egunean, herriko gazteek herri-kirol norgehiagoka jokatu dute eta igandean aizkora apustua izanen dute

TTIPI-TTAPA

Aurtan ere, besten aitzakian, ekitaldiz betetako asteburua izanen dute urroztarrek irail hondarrekoa. Ortzegunean, irailak 26, botako dute beste hasiera emanen dien txupinazoa eta igandea bitarte non gozatua izanen dute. Hilabete azken eguna, berriz, besta ondoko garbiketa egiteko aprobetxatuko dute.

IRAILAK 26, ORTZEGUNA

18:00etan haurrendako puzgarriak paratuko dituzte eta 20:00etan txupinazoa botako dute. Ezkilak jo ondotik,

20:15ean herri-kirol apustua egingen dute herriko gazteek. 21:00etan Zopak dastatzeko aukera izanen dute Herriko Ostatura hurbiltzen direnek, eta gauerditik aitzinera Modesto akordeoilariarekin dantzaldia izanen da plazan, 05:00 arte.

IRAILAK 27, ORTZIRALEA, HAURREN EGUNA

Haurrak izanen dira eguneko protagonista nagusiak. 10:30ean haurrendako jokoak izanen dituzte eta horrez gain, goizez eta arratsaldez puzgarriak izanen dituzte. 11:00etan

mus txapelketa hasiko da eta 12:00ean luntxa eskainiko dute Herriko Ostatuan. Giroa alaitzeko herriko trikitilari gazte txoak ere han izanen dira. 17:00etan, herriko dantzariak erakustaldia eskainiko dute, eta 20:30ean, zezensuzkoa aterako da. 21:00etan gazteak mahaiaren bueltan bilduko dira afaltzeko eta musika ere ez da faltako: 20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 03:00etara Frantzisko musikariarekin dantzaldia izanen da.

IRAILAK 28, LARUNBATA HERRIAREN EGUNA

Goizez eta arratsaldez puzgarriak izanen dituzte eta 14:00etan herri-bazkaria egingo dute.

BESTETAN EGUNERO PUZGARRIAK IZANEN DITUZTE

nen dute Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Ondotik, Modesto musikaria ariko da. 00:00etatik 05:00etara Gabenara taldeak dantzaldia eskainiko du.

IRAILAK 29, IGANDEA

10:00etan mus txapelketako finala jokatu dute eta 12:30ean aizkora apustua hasiko da: Eneko Saralegi eta Iker Vicente, Mikel Larrañaga eta Joxean Etxeberriaren kontra ariko dira. 17:00etan, berriz, Doneztebeko dantza taldeak saioa eskainiko du eta 18:30ean Los Tajudos del Norte maria-txi taldearen doinuekin gozatzeko aukera izanen dute. 21:00etan tortilla eta postre lehiaketak eta bingoa egingen dituzte. Egun horretan ere, goizez eta arratsaldez puzgarriak izanen dira.

IRAILAK 30, ASTELEHENA

Bestetako hondarreko eguna herria garbitzeko izanen da eta gosaria ere egingen dute.

Urrozko Udalak

besta zoriontsuak
opa dizkizue
urroztar eta bisitari
guztiei

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Herriko gaztearen heriotzak samina eragin du

JAIONE ARIZTEGI

Unai gaztearen heriotzarekin samina bizi dugu aste hauetan. Gogorra da guztiontzat gertatutakoa onartzea. Lerro hauen bitartez, doluminak eta animoak eman nahi dizkiegu familiari eta gertuko lagunei.



Bertso eskolan izena emateko deia eginez bideoa egin dute. KATUBI

Helduen bertso eskolan izena emateko epea zabalik

Interesa dutenek irailaren 27a baino lehen eman beharko dute izena

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak eta Nafarroako Bertsozale Elkartek elkarlanean, aurtenera Malerrekan helduen bertso eskola sortu nahi dute.

Urrian hasi eta ekainera bitarte, astean bi orduz eskainiko dute eskola, eta lekua, eguna eta ordua izena ematen

dutenen artean zehaztuko dute. Matrikula 120 euro izanen da eta bi epetan ordainduko da.

Interesatuak irailaren 27a baino lehen eman beharko dute izena, 948 45 17 46ra deituta edo euskarazerbitzua@mallerreka.infolocal.org helbidera idatzita.



JAIONE MINDEGIA

Besta parte-hartzaileak Oizen

Hiru egunez besta giroa nagusitu zen Oizen. Musikarien kalejirak eman zien hasiera eta handik aitzinera, otorduak, musika, mus txapelketa, lehiaketak, aizkora apustua, jokoak, puzgarriak... denetarik izan zuten. Are gehiago, inoiz baino besta parte-hartzaileagoak izan direla adierazi dute.



NEREA ZELAIETA

Musika eta dantza lagun joan dira Legasako bestak

Abuztuaren 28an hasita besta giroa beteaz ibili ziren legasarrak. Bertzeak bertze, erraldioen gerizpean ibiltzeko aukera izan zuten eta musika eta dantzarako aukerarik ez zuten falta izan. Zikero jatea, pilota partidak, herri-kirolak... Denetarik izan zituzten. Taloak janez eta mariatxiak adituz, zezensuzkoaren aitzinean lasterka akitu zituzten bestak irailaren 1ean.

Euskaltegian izena emateko epea zabalik dago

Irailaren 30a arte izanen da horretarako aukera eta 16 urtetik goitikoek euskara debalde ikasteko aukera izanen dute

TTPI-TTAPA

Malerrekako euskaltegiak 2019-2020. ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du eta euskara ikasi nahi dutenek irailaren 30era arteko epea izanen dute izena emateko.

Bigarren urtez, 16 urtetik goitiko Malerrekako ikasleek doakotasunaren programari esker, euskara debalde ikasteko aukera izanen dute Doneztebeko IKA euskaltegian.

Lan-poltsa osatzeko deia

Bortzirietako eta Malerrekako IKA euskaltegiek euskara-ira-

kasleen lan-poltsa osatzeko deialdia egin dute, 2019-2020 ikasturtean sortzen ahal diren beharrei erantzuteko. Parte hartu nahi duenak curriculum-a bidali beharko du urriaren 6a baino lehen bi helbide hauek batera: bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus. Honako hau eskatzen dute: EGA titulua (edo baliokidea), lizentziatura, komunikatzeko eta taldeak dinamizatzeko gaitasuna, B1 gida baimena eta autoa. Glotodidaktika ezagutzak ere baloratuko dituzte.



Ekainean Sunbillan egin zuten Malerreka Kantuz. MAIDER PETRIRENA

Udako atsedenaldiaren ondotik urriaren 5ean hasiko da Malerreka Kantuz

TTPI-TTAPA

Ekainaren 1ean Sunbillan egin zen uda aitzineko hondarreko Malerreka Kantuz ekimena eta udako oporrak akituta, urriaren 5ean hasiko dira euskal kantak kantatzeko hitzorduak.

Urriaren 5ean Iturenen eginen du lehenbiziko geldialdia. Eguerdian plazan bilduko dira

eta hortik abiatuta herria kantuz girotuko dute. Ondotik, Donamariari pasako diote lekukoa, azaroaren 2an, eta urteko azken Malerreka Kantuz, berriz, Donezteben egingen dute.

Hitzordu guztiak 12:00etan hasiko dira eta plazaatik abiatuko dira.



PROMOCIONES

MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)

Sunbillan
neurriera egindako
etxebizitzak

**AUKERA
BIKAINA!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**Denek 3 logela,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren arabera finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Bazkideak biltzeko eguna urriaren 24an Gorraizen

Urriaren 10a arte eman daiteke izena 948 45 08 78 telefonora deituz

PABLO IRASTORTZA

Elkartea «irrikaz» hartzen duen Bazkidearen Egunari begira hasia da. Gorraizen, urriaren 24an, ortzegunean, bilduko dira eta egitaraua prest dute dagoeneko.

Omenaldia eta sari-banaketa

12:00etako mezaren ondotik, urrezko eta diamantezko ez-teiak ospatzen dituzten bikoteei eta aurren 85 urte betetzen dituztenei omenaldi hunkigarria eskainiko diete. Era berean, literatura, marrazki, pintura eta argazki lehiaketetan irabazle izan diren kideei sariak banatuko dizkiete.

Bazkaria eta dantzaldia

Eguerdian, 14:00 aldera, bazkaria izanen dute Gorraizko Gazteluko jatetxean. Bazkalondoan, berriz, ohiko dan-



Omenaldiak eginen dituzte.

tzaldia faltako ez denez, geldirik egoteko tarterik ez dute izanen. Ilunabarrean, 19:00etan, etxera bueltatzeko autobusa hartuko dute.

Izen-ematea

Egun handi horretarako izena emateko epea urriaren 10a, ortzeguna, arte dago zabalik eta bertaratu nahi dutenek 948 45 08 78 telefonora deituz eman dezakete izena. 45 euro ordaindu beharko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elkarteko 210 lagun Arantzazun

Urtero bezala, aurren ere Arantzazun izan ziren elkarteko kideak abuztuaren 31n. 210 lagunek eguraldi eta giro ederraz gozatu zuten. Mezako bueltaren ondotik, Oianume jatetxean bazkaldu zuten. Joxe Angelen musikak girotu zuen bazkalondoa.

Ikastaroetan izen-ematea zabalik irailaren 26a arte

TTIPI-TTAPA

Udako egonaldi lasaiaren ondotik, burua eta gorputza martxan paratzea komeni izaten da. Elkarteko kideek horretarako aukera izanen dute antolatu dituzten ikastaroetan. Yoga, gimnasia, pilates, igeriketa, zumba, pin-

tura... norberak gustuko duena aukeratu ahal izateko, aurren ere, eskaintza zabala prestatu dute. Saioak urrian hasiko badira ere, izen-ematea irailaren 26a bitarte egin daiteke eta apuntatzeko Doneztebeko bulegora deitu behar da.



P. IRASTORTZA

Abuztuan Lizarrustin eta irailean Saioan

Mendizaleak ez daude geldirik egoteko. Irailaren 20an 58 lagun bildu ziren Lizarrustira egin zuten mendi-irteeran. Buelaren ondotik, Bittor jatetxean borobildu zuten eguna. Tomas Erbitiren musikaren erritmora dantzatzeko aukera izan zuten gero. Irailaren 17an, berriz, Saioara joatekoak ziren.

Lesakako Errengako mairubaratzean ehiza-tokia egin dute

Ehiza-postuak monumentu megalitikoaren gainean eraikitzen dituztenen kontra egiteko eskatu dio Eguzki Nafarroako Gobernuari, iaz Irusoko trikuharrian ere egin baitzuten Leitzan



Ehiza-postua Errengako mairubaratzean. HILHARRIAK ELKARTEA

TTIPI-TTAPA

Errengako mairubaratz baten gainean, Lesakako udalerrian, ehiza-postu bat jarri dutela eta, Eguzki talde ekologistak gauzak argitzeko eta, hala badagokio, erantzuleen kontra neurriak hartzeko eskatu die Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Ingurumen departamentuei.

Hilharriak elkarteak postua abuztu bukaeran salatu zuen eta, ondotik, lekuz aldatu dute, baina, Eguzkiren iritziz, Gobernuak erreakzionatu behar luke, ez baita horrelako zerbait gertatzen den lehen aldia. Izan ere, iazko maiatzean antzeko salaketa bat egin zen, ehiza-postu handi bat eraikitza zegoelako Leitzako Iruso 1 trikuharriaren gainean. Kasu hartan ere, salaketa egin bezain agudo, postua lekuz aldatu zuten, baina ordurako kalteak nabarmenak ziren.

Leitzako trikuharria zein Lesakako mairubaratza behar bezala seinalizatuta zeuden eta daude. Eguzkiren idatzia-aren arabera, «behar bezala seinalizatuta zegoen Errengako mairubatz baten gainean (edo Iruso 1 trikuharriaren gainean) ehiza-postu bat eraiki dutenik ez du inork asmatu. Eta monumentuei erreparatu ez badiete, alferrik eskatuko diegu beste hainbat gauzei erreparatzeko, esaterako, postuek bideetatik izan behar duten gutxieneko distantziari. Horrelako gauzak errealtateari eskopetaren kanoi-zuloetatik bakarrik begiratzen zaionean gertatzen dira».

Erakutsi eta probetu aukerak!

**DESKONTUAK
MALERREKA
TTIPI TXARTELA**

2019-2021

EZ %10 DESKONTUA produktuetan Intzakardi, z/g DONEZTEBE T. 948 45 03 64	JUAN J. PICABEA %10 DESKONTUA arropa guztietan Ameztia DONEZTEBE T. 948 45 16 70	kukuka 10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan Zazpigarutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52	Maita mada %5 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 100etik gorako erosketetan Promozioetan ezik Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27
MAIREKA %5 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71	lorea %5 DESKONTUA kontsultetan T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com	Amaya Picabea %5 DESKONTUA kosmetikan %5 DESKONTUA oparietan 50etik gora. Promozioetan ezik Ameztia DONEZTEBE T. 948 45 01 63	ARRATE ETETIMA ZENTROA %10 DESKONTUA Skeyndor Eternel kremetan Eliza, 18 behe DONEZTEBE T. 948 45 02 86
KARLOS ALZUGARAY %10 DESKONTUA hamar saloko bonoan Elizagibela, 4 behe DONEZTEBE T. 607 85 32 08	Mari Cruz %10 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12	Miguelena %10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30etik gorako erosketetan Ameztia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25	Kimetz Bolardenda %5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com
Alustiza %10 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan Nagusia, 12 DONEZTEBE T. 948 45 01 13	Nikarrai Zurbitzusi %5 DESKONTUA zakur eta katuen pensuan Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45	TINTORERIA JAIONE %10 DESKONTUA 12etik gorako erosketetan Elizagibela, 7 DONEZTEBE T. 676 40 57 61	CASA ESTIZ %10 DESKONTUA oinetakoetan Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89

Ikastaroetan izena emateko aukera irailaren 27ra arte

Eskulanak ostiraletan eta jumpfit, pilates eta total training ikastaroak eskainiko dituzte astearte eta ostegunetan

TTIPI-TTAPA

Urritik maiatzera bitarte, hainbat ikastaro eskainiko dituzte herrian. Eskulanak izanen dituzte ostiraletan, 16:30etik 19:30era eta Oihana Insausti ariko da irakasle lanetan. Kirola egitea nahiago dutenek berriz, *jumpfit*, *pilates* eta *total training* ikastaroak izanen dituzte aukeran. BPXport enpresako monitorea etorriko da astearte eta ostegun arratsaldetan eta ordubeteko saioak izanen dira. Ordutegia oraindik zehaztu gabe zuten hau idazterako orduan.



laz jumpfitean aritu zirenak. KRONIKA

Izena ematea irailaren 27a baino lehenago egin beharko dute udaletxean, aurrez aurre edo telefonoz deituta. Informazio gehiago nahi duenak ere bertan galde dezake.



F. LOIARTE

Mendeurrenean ere jendetza Artikutzan

Bertze urte batez, San Agustin egunez, asko izan ziren Artikutzara oinez, autoz edo zaldiz hurbildu zirenak. Aurtengoa urte berezia izan da, aurten baitira ehun urte Donostiako Udalak Artikutza erosi zuela. 3.250.000 pezeta ordainduta, gaur egungo baliora ekarrita, 7,3 milioi euro.

Maisuenean haurren jolastokia izanen da astelehenetan

Yoga egin edota gitarra jotzen ikasteko aukera izango da herrian urritik aurrera

OHIANA KALPARSORO

Udazken eta neguan aterpe goxoa eskainiko die, aurten ere, Maisueneak herritarrei. Urritik aurrera, astelehen arratsaldetan irekiko dute garai bateko maistraren etxea zena eta horrela jolastoki itxia izanen dute.

Urria baino lehen ere izan da mugimendua Maisuenea inguruan. Auzolana egin zuten iraileko lehendabiziko astean eta haurrak, gazteak eta helduak elkartu, pintura poteak hartu eta denen artean mural ederra margotu zuten.

Hainbat ikastaro

Maisuenean eginen dituzten bilkurak ez dira izanen ikasurte honetako arratsaldepa-bakarrak. Pasa den urtean bezalaxe, hainbat ikastaro eskainiko dituzte herrian. Yoga

ikastaroekin urrian hasiko dira, asteazkenetan 19:30ean izanen dira saioak eta Iñaki ariko da irakasle lanetan. Ikastaroan izena eman nahi duenak aski du berarekin hitz egitea.

Gitarra ikasi nahi duten haurrek eta gaztetxoek ere izanen dute horretarako aukera. Ordua eta eguna ez dituzte oraindik zehaztu, baina, ziurrenik, asteazkenetan izango dira klaseak. Interesa duenak apuntatzeko Jon Mari Beasainekin hitz egin beharko du.

11 ikasle eskolara

Aurten hamaika ikasle dira Goizuetako Xalto eskolara egunero joan-etorria eginez dabilzanak. Goizeko zortziak aldera plazan jasotzen dituzte ikasleak, 09:00etan klasera sartzeko eta arratsaldea da bueltan etortzen direnerako.

'Mendialdea zoragarria' argazki-lehiaketa antolatu dute estreinakoz

TTIPI-TTAPA

Aralar-Urbasa Landetxeen Elkartek antolatu du lehiaketa bertako ondareari dagokion balioa emateko. Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Larran, Lekunberri, Araitz, Betelu, Imotz, Basaburua eta Ultzaman edo inguruan ateratako argazkiak aurkez daitezke. Herritar zein bisitariek parte hartu ahal izanen dute eta bakoitzak, gehienez, bost lan aurkeztu ditzake. Argazkiak aralarurbasa@gmail.com helbidera bidali beharko dira azaroaren 4a baino lehen.



Azaroaren 4ra arte.

Irabazleak asteburuko egonaldia jasoko du, bigarrenak bi lagunentzako otordua bertako jatetxe batean eta hirugarrenak bertako produktuekin osatutako saski bat.



Tronboia, zeharkako xirula, tronpeta eta teklatura jotzen ditu zuzenean Unaik Gure Zirkuko emanaldietan. AGERREMEDIA

«Anima zaitezte zirkuak duen magia hurbiletik sentitzera»

UNAI ZABALETA ALDUNTZIN GURE ZIRKUAN ARI DEN LEITZARRA

Gure Zirkuko emanaldiak musikaz janzten ari da Leitzako musikaria. Ilusioz hitz egin digu lortzen ari direnaz; argiak itzalita egiten duten lan guztia ikusleen irribarretan islatzen delako

E. IRAOLA LEITZA

2018ko udan hasi zen Gure Zirkua bidaia. Lau hilabetez ibili ziren Euskal Herrian aurrera eta atzera eta iazko arrakasta ikusita, errepidean dira aurrean; udako egunak udazken-neguraino luzatuz.

Laster eginen dute eskualdera bisita: irailaren 23tik urriaren 6ra Elizondoko izanen dira eta urriaren 7tik 20ra Leitzan. Zirkuko partaidea den Unai Zabaleta Alduntzinekin bildu da TTPI-TTAPA.

Zer da Gure Zirkua?

Zirku klasiko bat da, profesional asko biltzen dituena. Emanaldiz emanaldi dena ematen saiatzen gara: ilusioa, bizipoz, algar, emozioa... eragite-

ko. Hasieratik izan da gure nahia jendeak Gure Zirkua esatean, benetan, beraiena dela sentitzea: 'Hauxe da gure zirku' esatea.

Euskal Herriko aurreneko zirku ibiltaria da.

Bai, hala da. Badira aurretik ere, zirkuak dabilen euskal artistak, baina, egia da Euskal Herrian aurreneko aldia dela, hainbat diziplinetako artistak elkartu, zirku osatu eta euskaraz emanaldiak eskaintzen ari dena.

Barrenetik, artista bezala, nola bizi duzu zirkuak?

Oso ederra izaten ari da; esperientzia zoragarria. Eskertzekoa da Iker Galartzak amets hau gauzatzeko gurekin pen-

tsatu izana. Artista bezala zirkuak ematen digun guztia hitzez azaltzea zaila da oso. Jendea zirkutik irribarre batekin nola ateratzen den ikustea, zorionak eta eskerrak nola ematen dizkizuten ikustea... ikaragarria da. Baina, ordu eta erdiko emanaldi horretatik haratago, zirku bizitzeko modu bat ere bada. Taldeki-deek dugun hartu-ema, elkarlana... Zirkuan ez baika-

«ZIRKUAK EZ DU ADINIK, JENDEAK EZ DEZALA IZAN ERREPARORIK»

ra musikaria edo magoa bakarrik, denok egiten dugu denetarik: muntaian aritu, txartelak prestatu, pista garbitu, antolaketa lanetan aritu... hori guztia ere bada zirku.

Nori dago zuzendua emanaldia?

Zirkuak haurrekin lotu izan da maiz, eta hori ez dut uste egokia denik. Zirkuak ez du adinik, ikus-entzule guztiei zuzendua dago. Edo ezin al du, akaso, edozeinek gozatu malabarista edo trapezista baten saioaz, musika entzun edo pailazoen ateraldiekin barre egin? Zirkuak denontzat da, ez du adinik eta horregatik irakurleei esanzen nieke ez edukitzeko erreparorik. Anima zaitezte zirkuak duen magia hurbiletik sentitzera. Nik uste, eta umil diot, ez zaretela damutuko.

Harrera beroa egin dio orain arte jendeak zirkuari. Eskualdera heldu zaretan orain...

Orain arte, zorionez, ikaragarriko arrakasta izan du: betekada aldiro, sarrerak agortuta... Eskualdera heldu gara orain eta izugarriko ilusioa egiten dit hemen aritzeak. Elizondoko familia eta lagunak ditut eta Leitzan, zer esan, nire herria da. Gogotsu nago, pozik, baina, era berean, onartu behar dut herritik kanpo lasaia gozatzeko aritzen naizela. Hasi aurreko tentsioa handiagoa da etxean ari zarenean.

Noiz izanen dira emanaldiak?

Irailaren 23an jarriko dugu karpia Elizondoko Merkatu Plazan eta bi astez egonen gara bertan. Handik, urriaren 6an Leitzarako bidea hartuko dugu eta 7an igerileku ondoan muntatuko dugu karpia. Batean zein bestean, ostiralean, larunbatean eta igandean izanen ditugu emanaldiak: egun bakoitzean bi saio. Denera 20 saio dira, baina, sarrerak zer nolako ziztuan saltzen ari garen ikusita, zirku etorri nahi duenak hobe dulehenbailehen erosten baditu. Elizondoko Fantxiken, Leitzako Maimurren eta interneten www.eventbrite.es web orrian 12 euroren truke dituzue eskuragarri.



Herriko ostalariek taloekin prestatutako hainbat gutizi plazaratuko dituzte.

Taloaren aitzakian pesta borobila dute prest iganderako

Eguerdian erraldoi eta buruhaundien konpartsa aterako da eta arratsaldean hirugarren irrintzi lehiaketa egingen dute

TTIPI-TTAPA

Irailaren 22an, igandean, hamabosgarren edizioa beteko du Leitzako Talo Egunak. Goizean, 10:00etan irekiko dute azoka eta Saralegi eta Billabona talogileek egindako taloak eta inguruko herrietatik bertaratutako artisauen produktuak erosteko aukera izanen

da goizez zein arratsalde. Tresneria zaharren erakusketak ere jarriko dute eta Leitzako ostalariek taloak osagai bezala erabilita prestatutako mokaduak ikusteko aukera ere izanen dute bisitariek, ideia berriak hartzeko. 12:00etan erraldoi eta buruhaundien konpartsa aterako da eta saioa



Arratsaldean, irrintzi txapelketa.

eskainiko dute plazan. Ordu berean, eskualdeko talo lehiaketa hasiko da. Bertan parte hartu nahi dutenek 11:00etatik aurrera izanen dute izena emateko aukera.

III. Irrintzi Txapelketa

Arratsaldean irrintzi doinuak zabalduko dira plaza inguruan. Hirugarrenez antolatu dute Irrintzi Txapelketa eta parte hartu nahi dutenek 11:00etatik aurrera izanen dute izena emateko aukera. Bi taldetan banatuta ariko dira, 17:00etan haur eta gaztetxoak eta 18:00etan helduak. Batzuek zein besteei sariak izanen dituzte; beraz, has zaitezte ezarriak berotzen!

Kiroldegian bazkide egiteko sarrera dohainik irailan

Anikote kiroldegia bezero berriak erakartzeko kanpaina jarri du martxan; hala, irailan kiroldegiko bazkide egiten direnek ez dute sarrerako kuota ordaindu beharrik izanen. Baldintza bakarra urte betez bazkide izatea da eta trukean ikastaroetan sartzeko lehen-tasuna eta prezioetan abantailak izanen dituzte orain arteko bazkideek bezalaxe. Arkupeak elkarteko kideek ere ikastaroetan beherapenak izanen dituzte. Ate-irekien jardunaldia ere antolatu dute irailaren 29rako.

47ak herrian ekimenarekin lotutako ekitaldiak

11/13 sumarioan auziperatuko 47 herritarrei babesa adierazteko hainbat ekitaldi egin dituzte irailan. Irailaren 11n Fran Balda eta Eneko Villegasek hitzaldia eskaini zuten Atekabeltzen eta 14an autobusa antolatu zuten Bilboko manifestazioari joateko.



UTZITAKOA

Omenaldi ederra eskaini diote Jabier Eskubiri

Irailaren 8an omenaldia eskaini zioten karrapean herriko txistulari eta Aurrera Kirol Elkarteko kide izandakoari. Dantza, bertso eta txistu doinurik ez zen falta izan. Herriko txistularien txokoan ere bere omenez oroigarria jarri dute.

Herri-guneko argiteria guztia LED sistemara aldatzeko bidean

Udalak 2019an herri-guneko argiteriaren ehuneko ehuna LED sistemara aldatzeko apustua egin du. Ekoleds enpresa ari da lanez arduratzen eta azken fasean sartuak dira dagoeneko. Neurri honekin, kontsumoa, %60 eta 70 artean murriztea aurreikusi du Udalak. 120.000 euroko aurrekontua (BEZ gabe) dute lanek eta %60a Nafarroako Gobernuak finantzatu du. Herri-guneko aldaketa egindakoan Landa industrialdeko argiteria indartzeko asmoa ere agertu du Udalak.



Aurrerako Mendibil BTT taldeak eskuragarri jarritako 350 dortsalak banatu dira. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Leitzulirako 350 dortsalak banatu dituzte

Irailaren 28an izanen da Aurrerako Mendibil BTT taldeak antolatu duen probaren laugarren edizioa

TTIPI-TTAPA

Aurrera Elkarteko Mendibil BTT taldekoek laugarrenez antolatu dute Leitzulia mendi bizikleta proba. Iraileko azkeneko larunbatean izanen da, irailak 28, eta parte-hartzaileek 42 kilometro eta 1.400 metroko desnibel metatua duen ibilbidea osatu beharko dute.

Berez, irailaren 22ra arte zegoen izena emateko aukera, baina, irailaren 10erako eskuragarri zeuden 350 dortsalak banatuak zituzten.

Ez da proba lehiakorra eta guztia mendiko xenda eta basoetan barna egingen da, errepiderik ia zapaldu gabe. Leitzako kaskoak zeharkatuz

osatuko dute itzulia. Bidean, edariak eskainiko dizkiete parte-hartzaileei bi puntutan, Basakabin eta Uitziko gainean, eta helmugan ere ez dira jan-edanak faltako. Parte-hartzaileen erosotasunari begira, dutxak, bizikletak garbitzeko mangerak, aparkalekuak... ere prestatuko dituzte eta proba bukatzean hainbat oparirekin poltsa eskuratuko dute.

Auzolanean

Aurrerako Mendibil BTT taldeko kideak buru-belarri ari-tu dira azken asteetan mendiko bidexkak ireki eta ibilbidea txukuntzen. Probaren bezperatan eta egunean berean ere auzolana izanen da guztia ongi ateratzeko giltza.

Kaskagorren pentatloia irailaren 21ean

Hogei urte baino gehiago bada, Aurrera Elkarteko kideak lasterketa berezi hau antolatzen hasi zirenetik. Irailaren 21erako egin dute hitzordua eta beste behin ere Leitzua eta Donostia lotuko dituzte. Goizean, 09:00etan elkartuko dira Donostiako Ondarreta hondartzan eta igerian arituko dira. Segidan, bizikletak hartu eta Plazaola natur-bideraino etorriko dira, Astibia pareraino, handik herrira lasterka etortzeko. Bukatzeko, indarrak berreskuratzeko bazkaria izanen dute eta segidan pesta.

Atekabeltz atzeko kalea moztu dute herri-lanengatik

Atekabeltz gaztetxearen atzealdean obretan hasiak dira. Hori horrela, ikastetxeetako sarretan eta irteeretan beste bideak erabiltzea aholkatu dute eta ahal dela, Udalak kotxerik gabe ibiltzeko deia egin du. Lanak azaroan bukatzea espero dute.



UTZITAKOA

Saharako hiru haur izan dira herrian udan

Saharako kanpalekuetatik etorritako hiru gaztetxok 62 egun egin dituzte gure artean. ANAS Elkartearen bidez etortzen dira harreraren hartzen dituzten familiekin uda pasatzera, mediku azterketak egin eta basamortuko berotik ihesi. Nafarroan ehun haur izan dira aurtengo udan.

Kornietako mendi-bidea berreskuratu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Garai bateko PR-NA 121 bidexka, aspalditik deskatalogatua zegoena, egokitu dute eta bi ibilbide gehitu dizkiote. Bat ibilbide laburra eta zirkularra da; besteak Plazaolako Bide Berdearekin bat egiten du Kitarranbuelta izenarekin ezagutzen den inguruan.

Hala, 24,78 kilometroko ibilbidea osa liteke Kornietan inguruan. Ibilbide luzearen baitan, beste bi ibilbide ere prestatu dituzte: PR 121.1a, Santa Kruz ermitan barna igarotzen dena eta 121.2a, Kor-



Kornietan barna, hainbat ibilbide.

nieta-Kosabel ingurutik Leitzako herri-gunera jaisten dena. Azken honek aldaera bat ere badu, Kornietako-Kosabel eta Ansolizaundi artetik igarotzen dena.

Bertsotan ikasteko aukera izango dute gaztetxoek

Urritik aurrera pilates ikastaroak ere eskainiko dituzte taldea osatzen bada

TTIPI-TTAPA

Urrutira joan gabe, gorputza eta burua lanean jartzeko aukera izango dute herritarrek. Pasa den urtean bezalaxe, taldeak osatzen badira, gazteen bertso-eskola eta pilates ikastaroak eskaintzeko asmoa dute urritik aurrera.

LH 4, 5, 6 eta DBH 1 eta 2ko ikasleek izango dute bertsotan ikasteko aukera. Ane Intxausti ariko da bertso-eskolan irakasle lanetan. Urriko aurreneko astean hasita, astean saio bat egingo dute. Eguna eta ordua irakaslearekin zehaz-

tuko dituzte, irailaren 26an 18:00etan udaletxean egitekoa duten bileran (ikasleak ezin badu joan, ordezkari bat bidal dezala). 20 euro kobratuko dituzte hiru hileko bakoitzeko. Izena emateko orriak banatu dituzte eskolan eta irailaren 20an bilduko dituzte.

Pilateseko klaseak, berriz, astelehenetan eta asteazkenetan eskainiko dituzte, 15:30etik 16:30era. 135 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroagatik. Izena emateko epea irailaren 20ra arte dago zabalik.

Uso postuen enkanteak irailaren 21ean eta 28an egingo dituzte

TTIPI-TTAPA

Uso ehizako denboraldiari hasiera ofiziala eman aurretik, urteroko eginbeharrak ari dira betetzen Aresoko ehiztariak. Larunbatean, irailaren 21ean uso postuen enkantea egingo dute udaletxean, arratsaldeko zazpitan. Urteaga inguruko hogeita sei postu izango dira aukeran. Lehendabiziko enkantearen ondoren, sesteorako aukera izango da astebetz eta hilabeteko azkeneko larunbatean, irailaren 28an, egingo dute bigarren enkantea, toki eta ordu berean.

Garbitzaile lanpostua

Bestalde, Udalak jakinarazi du eskola eta udaletxea garbitzeaz arduratzen zen langileak lanpostua utzi duela. Konponbide bila dabilta eta burutan dute garbitzaile berri



Prest dituzte ehiza-postuak.

bat kontratatzea. Sarri zehaztuko dituzte lan-baldintzak. Xehetasun guztien berri hurrengo aldizkarian izango duzue.

Hiri eta landa-lurren gaineko zergak

Irailaren 12tik urriaren 13ra arte zabalik dago 2019 urteari dagokion hiri eta landa-lurren gaineko zerga ordaintzeko epea. Zalantzaren bat duenak udaletxera jo dezake.



ARGAZKIAK: I. BARANDARAIN, Z. GOIKOETXEA ETA H. BARANDARAIN

350 mendizale bildu dira Mendi Martxan

Iraileko lehendabiziko igandean, hamabigarren edizioa bete zuen Mendi Martxak. Ohiko arrakastaz, 350 mendizale bildu zituen itzuliak. Herritarrek auzolanean aritu ziren eta beste behin ere ederki bete zuten herritar baino mendizale gehiago biltzen dituen ekitaldia antolatzeko erronka. Bejondeizula!

Mendian erorritako zuhaitzak edo adarrak hartzeko zerrenda zabalik

TTIPI-TTAPA

Aurreko aldizkarian iragarri genuen Udalak egur-loteen zerbitzuan aldaketak egiteko asmoa zuela. Mendian erorritako zuhaitz eta adarrei eragiten die hartu duten neurrietako batek, horiek aprobetxatu eta herritar guztiei eman nahi die eta horiek erabiltzeko aukera. Interesa dutenek irailaren 30a baino lehen eman beharko dute izena. Gero, epe barruan izena ematen dutenen artean zozketa egingo dute eta hala finkatuko dute egurra hartzeko ordena.

Mendian egurra hartzeko modua dagoela ikusten dutenean, telefonoz deituko diete zerrendan izena eman dutenei eta ordaindu beharreko diruaren berri ere emanen diete. Txanda iristean egurra hartzeari uko egiten diona zerrendako azken postura pasatuko da.

Horrekin batera, Udalak gogorarazi du hartzen den egurra nobere kontsumorako erabili behar dela eta ez beste interesetarako eta arau haueetatik kanpo egurra ekartzea debetatuta dagoela.



Bi urtetik behin egiten dute ospakizuna. ARTXIBOKOA

Basaburua Eguna prest dute Zigan larunbaterako

Bazkarira joan nahi dutenek herri bakoitzeko antolakuntzako kideekin harremanetan jarri beharko dute

TTIPI-TTAPA

Badira lau urte Almandoz, Berroeta, Aniz eta Zigako herritarren hitzordua antolatzen hasi zirela. Herri bakoitzeko ordezkari boluntarioak bilduta, 2015ean Berroetan eta 2017an Almandozen ospatu zuten Basaburua Eguna. Aurtengatik hartu du lekukoa eta irailaren 21ean, heldu den larunbatean, besta eguna izanen dute. Ospakizunaren helburua herritarrak elkartu eta euren arteko harremanak sendotzea da.

Horretarako, inguruko herritarren laguntzaz, auzola-

nean, adin guztietako lau herrietako biztanleendako egun osoko egitaraua antolatu dute; haurrei, kirolzaleei, dantzarietara eta bertzelako zaletasunak dituztenei ongi pasatzeko aukera eskainiko die. Ekitaldi eta ekitaldi artean bazkaria egingen dute.

Bazkarirako txartelak

Bazkarira joan nahi dutenek txartelak aitzinetik erosi beharko dituztela jakinarazi dute. Horretarako, herritarrek herri bakoitzeko antolakuntzako kideekin harremanetan jarri beharko dute.

Besta ttikiak Amaiurren heldu den asteburuan

TTIPI-TTAPA

Uda agurtu eta udazkenari ongi etorria besta ttikiekin egiten diete amaiurtarrek. Irailaren 20an eta 21ean, ortzirale eta larunbatean, zehaztu dute hitzordua.

Ortziralean afaria eta larunbatean zikiroa

Ortzirale ilunabarrean leher-tuko da beste hasiera emanen dien txupinazoa eta ondotik herritarrek Gaztelu elkartearen afalduko dute. Larunbatean, berriz, zikiroaren bueltan bilduko dira plazan (eguraldiak



Larunbatean zikiroa jatea dute.

laguntzen ez badu, berriz, elkartearen). Akordeoilariak giro-tuko du mahaiaren ingurua eta herritarrek dantzan eta kantuan aritzeko aukera izanen dute.

Pirinioetako behi-aziendaren lehiaketa asteburuan

Asteburuan Elizondoren Pirinioetako behi-aziendaren lehiaketa izanen da (ik. 741. zk.). Hori aitzakiatzat hartuz, irailaren 23ra arte salda, pintxo eta bustiez gozatzeko ibilbidea prest dute Arizkun, Elbete, Elizondo, Irurita, Olabe eta Oronozko zenbait ostaturak.

'Ruandan zer berri? Galdeiezu bizikletei' erakusketa zabalik

Medicus Mundik antolatuta, irailaren 26tik urriaren 10era arte *Ruandan zer berri? Galdeiezu bizikletei* argazki-erakusketa ikusteko aukera izanen da Arizkunenea kultur etxean. Ikusleek Afrikako herrialde horretan bizikletek duten presentzia ezagutuko dute.

TINTALANAK
RAMUNTZO ERRANDONEA

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!

Pintura-lanak kanpokoak eta barnekoak
Zolak, zatiketak eta beste lan txikiak jartzea
Denden diseinua eta dekorazioa

📍 Zugarramurdi
☎ (+33) 06 03 347 076
✉ tintalanak@gmail.com
🌐 www.tintalanak.com

ANZABAL
inmobiliaria

- **Zurich Aseguruak**
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- **Inmobiliaria**
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- **Gestoria**

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Bailara irudikatzen duten hamaika argazki dituzte atarian. VALLEDEBAZTAN.COM

Valledebaztan.com atari turistikoak hogeitaz bete ditu

Ingurua saltzeaz gain, «argazki eta bideoekin Baztan irudikatzen» ari dira, «hasmentako xarma mantenduz»

TTIPI-TTAPA

Baztandar sentimendua eta informatikako ezagutzak uz-tartuz, 1999an Jaime Biguriaren ekimenez sortu zen *valledebaztan.com* ataria. Hasmentan «Baztani buruzko informazioa biltzen zuen atari pertsonala» zena, «hiru lagunen proiektu profesionala» da gaur egun.

Etxeko uzta bilduz ekin zuen bidea Biguriak: «nire argazkiak eta lagunen informazioa erabili nituen iturri gisa». Istoria eta bitxikeriak, berriz, «aitari» zor dizkio: «horiek guztiak biltzea izan zen abiapuntua».

Ondotik, 2012an, «Eduarne programazio lanetan hasi zenean», bertze pauso bat eman zuten: «webgune profesionala izatera pasa ginen, edukiz hornitu, itxuraberritu eta egungo teknologietara egokitu genuen». Gehiago ere bada: «turistei begira, ostatuei, jaltetxei, jardueri... buruzko

«ATARIAK AZKEN URTE HONETAN 235.000 BISITA IZAN DITU»



Jaime Biguria, atariaren sortzailea.

informazio zehatza sartu genuen, baita Baztango argazkiak eta bideoak ere». Baliabideak garatu ahala, webgunearen erabiltzaile kopuruak goiti egin du: «azken urtean 235.000 inguru izan ditugu».

Informazio eguneratua eskura

Arrakastaren giblean lan-talde eraginkorra dago, «informazioa eguneratu eta sare sozialetan hedatzen» diharduena. Are gehiago, lan komertzialaz arduratzen den taldekideak, Joxe Marik, «behar dutenei telefonoz, postaz edo Whatsappez laguntza turistiko» eskaintzen die eta horrek guztiak ataria eta zerbitzua aberasten du.

Egindako ibilbidearekin eta lortutako emaitzekin «kontent» eta erronka berrietarako «gogotsu» daude: «momentuz Whatsapp- eta online-erreserbekin ari gara. Aldi berean, gure lan etnografiko xumearekin segituko dugu, hori izan baita hasmentako filosofia».

Ikastaroetarako izen-ematea zabalik irailaren 27a arte

Bigarren seihilekorako hainbat ikastaro prest dituzte Baztanen. Urriaren 5ean abiatuko dira gaita edo atabala ikastekoak (larunbatetan 09:00etatik aitzinera). Hilaren 7an ekinen diete ahots teknikei (astelehenean 18:00etan) eta abesbatza ttikiko kideek (asteazkenetan 18:00etan) ere heldu den hilabetearen hasiko dituzte saioak. Urriaren 8an musikoterapia (asteartetan) tailerra hasiko dute. Musika-tresnak edo aho-tsak lantzeko ez ezik, osasuntsu jateko (urriaren 7tik aitzinera astelehene eta ortzegunetan), sukaldatzen ikasteko (azaroaren 12an, 19an eta 26an), errege-erroskak egiteko (abenduaren 13an)... aukera izanen dute. Eskulanetan trebatzeko plastika lantegia (azaroan larunbatero), scrapbooking edo gabonetako opariak kontsumoan erori gabe sortzekoak (abenduaren 9an eta 10ean) ere izanen dituzte. Mutil-dantzak eta Baztango dantzak ikasi nahi dituztenek gorputza astintzeko bitartekoak prest dituzte.

Izen-ematea

Ikastaroetan izena eman nahi dutenek 27a arte dute izena emateko epea. 07:30etik 15:00etara asteleheneetik ortziralerara Arizkunenea kultur etxean edo 948 58 12 79 telefonoan.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
 Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Errezitaldi poetiko musikatua urriaren 6an Elizondon

Arizkunenean dute hitzordua 19:00etan eta sarrera ez da ordaindu beharko

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, urriko lehendabiziko igandean, hilaren 6an, *Parrapean* errezitaldi poetiko-musikatua ikusteko aukera izanen da Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. 19:00etan dute hitzordua eta sarrera dohainik izanen da.

Parrapean Violeta eta Nicenor anai-arrebek kantuz eta poemez osatutako errezitala da. Txiletar sortzaileak dira biak, XX. mendeko erreferentzia garrantzitsuak eta Hego



EUSKALERRIAIRATIA.EUS

Amerikako kulturaren eta literaturaren eragin handia izan dutena. Ikuspegi kulturala ardatz, eta gogoetak oinarri, errealitatea irudikatzen modu berezia eskaintzen dute.



NEREA MORTALENA

Arraiozko bestak ederki joan dira

Ibai Melladok eta Olatz Bergarak bota zuten txupinazoa. Besta lehertu zen momentutik, ekitaldi andana izan zituzten: gaztetxoendako jolasak, helduendako txapelketak eta guztiendako musika eta otorduak. Ongi pasatakoak eta ez atzertzekoak izan dira aurtengoak!

36 emakume txirrindularik ibilaldia egin dute

Bizikumek antolatuta, irailaren 1ean, Baztango herrietan barna 65 kilometroko ibilbidea osatu zuten 36 emakume txirrindularik. Ondotik, merezitako bazkaria egin zuten Errota elkartean.



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

Txartelak | Folletoak
Egutegiak | Irudi korporatiboa
Inprenta lanak | Aldizkariak
Katalogoak | Liburuak
Pegatinak | Lonak
Txapak | Rotulazioa
Boletoak | Poltsak | Mapak | Web

kulturkari.com

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



13:00etan frontoian bazkari autogestionatua egingen dute. FERNANDO ANBUSTEGI

Eskola ttikien besta Amaiurren irailaren 29an

Ibilaldia, ikuskizuna, bazkari autogestionatua, jolasak... izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Ttikiak bezain biziak direlako, Baztango eskola ttikien eguna izanen dute irailaren 29an, hondarreko igandean. Aurten Amaiurren bilduko dira. Ur-dazubi, Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolek, elkarlanean, egun osoko hitzordua antolatu dute.

Ibilaldia eta ikuskizuna goizean

10:00etan hasiko dute besta. Bertaratzen direnei harrera egin ondotik, 10:30ean, ibilbideetara joko dute. Bi aukera eskainiko dituzte: luzea (bi ordutan egitekoa); eta laburra, 45 minutukoa. Hiru eta zazpi urte bitarteko gaztetxoek, atsedeen hartu bitartean, Amaia

Elizagoienek eskainitako ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen dute. Eguraldia lagun bada, Erdiko bideko Gezemendiko bordalean izanen da emanaldia; euria egiten badu, berriz, Otsondo elkartean.

Zozketak eta jolasak

Eguerdian, 13:00etan frontoira joko dute eta bazkari autogestionatua izanen dute. Segidan, zozketa egingen dute. Arratsaldean, ez dute atsedenerako tarterik izanen. Hamaika aukera izanen dituzte: puzgarrietan saltoka ibiliko dira batzuk, zurezko jolasekin bertzeak. Eskalada probatzeko edo zaldian ibiltzeko modua ere izanen dute. Eguna herrikirol saioarekin akituko dute.

Ene Kantak taldearen emanaldia Elizondon irailaren 28an

Elizondoko Baztan pilotalekua irribarrez josiko da irailaren 28an, hondarreko larunbatean. Izan ere, Ene Kantak taldeak *Satorjator lurraren bihotzera bidaia* eskainiko du. 17:00etan hasiko da emanaldia eta sarrerak zazpi eurotan daude salgai (xehetasunak 741.zk.).

Mendigoizaleak martxan dira berriz ere

Uztailean eta abuztuan atsedeen hartu ondotik, berriz ere martxan hasiak dira Baztango mendigoizaleak. Irailaren 14an eta 15ean Pirinioetara joatekoak ziren. Hurrengo ateraldia, berriz, azaroan izanen dituzte. Lehendabiziko igandean, hilaren 3an, 08:00etan abiatuko dira eta Urrizketara joanen dira; 10ean 07:30ean aterako dira Infernuko errota bisitatuko dute; 17an Auritzera joko dute (irteera 06:00etan); eta 24an Behorlegira (07:00etan abiatuta). Elizondoko plazan bilduko dira.



MAITANE MARITORENA

66 txirrindulari Anizko topaketan

Txirrindulari gaztetxoek borzgarren hitzordua izan zuten irailaren 8an Anizen. 66 haurrek parte hartu zuten eta jende andana ere hurbildu zen ikustera. Haurren senideak ez ezik, aniztar gehienxkoenak bertaratu ziren. Akabailan bokadilloa eta Jauregiko jogurta eskaini zizkieten.

Gure Zirkua Elizondon izanen da irailaren 27tik urriaren 5era

TTIPI-TTAPA

Gure Zirkua Elizondon izanen da irailaren 27tik urriaren 5era. Bortz egunez hamar emanaldi eskainiko dituzte: irailaren 27an 18:00etan eta 20:30ean; irailaren 28an 12:00etan eta 20:30ean; irailaren 29an 12:00etan eta 18:00etan; urriaren 4an 18:00etan eta 20:30ean; eta urriaren 5ean 18:00etan eta 20:30ean.

Sarrerak salgai

Sarrerak salgai daude, bai Fan-txiken baita Internetez ere, www.eventbrite.es atarian.



TTIPI-TTAPAK harpidedunen artean irailaren 27an 18:00etan izanen den emanaldirako bi sarrera zozketatuko ditu. Irailaren 22ra arte eman daiteke izena ERRAN.EUS atarian.

Besta eguna irailaren 28an Erratzun

Zikiro jaterako txartelak herriko ostatueta daude salgai, 30 eurotan

TTIPI-TTAPA

Udako bestak pasata, irail hondarreko hitzorduari begira hasiak dira erratzuarrak. Izan ere, hilaren 28an, larunbatean, besta ttikiak ospatuko dituzte herrian.

Poteoa, bazkaria eta musika

Goiz erdian, 11:00 aldera, poteoa egingen dute herrian barrena. 14:30ean karpan elkartuko dira, zikiroa dastatzeko. Bazkalondoa, mahaiaren inguruan lasai egoteko edo kantuan eta dantzari aritzeko tartea izanen dute. Erritmoa marka-

tzeaz Hauspolariek taldea arduratuko da. Besta luzatu nahi dutenek aukera izanen dute, 23:00etan Yurrouz Brothers DJak hartuko baitu lekukoa. Antolatzaileek parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi izan dute.

Zikiroako txartelak

Era berean, bazkaltzera joan nahi dutenek txartelak aitzinetik erosi beharko dituztela jakinarazi dute. Herriko ostatueta paratu dituzte salgai eta 30 euro ordaindu beharko dira.

Patxi Baldanta elizondarra Nafarroako suhiltzaileen zuzendari izendatu dute

ARKAITZ MINDEGIA

Nafarroako Gobernuako Barne Departamentuak orain arte Tuterako suhiltzaileen parkeko sarjentua izan den Patxi Baldanta izendatu du suhiltzaileen zuzendari. Hala, 2016az geroztik kargu hori izan duen Jabier Bayona ordezkatu du.



Euskara ikasteko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

TTIPI-TTAPA

Aurten ere, euskara ikasten duten herritarrendako dirulaguntza eskaini du Udalak. 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra egindako ikastaroen matrikula gastuetarako izanen da dirulaguntza. Baztanen erroldatutako 16

urteko goitikoek eska dezakete, eskabide orria betez eta guttienez saioen %80ko aprobetxamendua egiaztatu beharko dute. Onuradunek deialdi bakoitzeko, gehienez, 420 euro jasoko dituzte. Xehetasunak www.baztan.eus atarian kontsulta daitezke.



ONDIKOL ETA VALLEDEBAZTAN.COM

Txokotoko bestak

Irailaren 6tik 8ra besta giroa izan zen nagusi Txokoton. Ortzirale ilunabarrean Naroaren eskutik lehertu zen txupinazoa eta haurren minbiziaren aurkako Lukas elkartasun panpina izan zuen lagun. Zopak, zikiroa, puzgarriak, mus txapelketa... izan zituzten.

Nekazaritza Politika Bateratuari buruzko ikastaroa Elizondon irailaren 27an

TTIPI-TTAPA

Euskal Unibertsitateak antolatutako udako ikastaroen barrenean, *Nekazaritza Politika Bateratua eredu berriak landa eremu bizia lortzen laguntzen al du? 2021-27 NPB berriaren aukerak elikadura sistema osasuntsuak eta landa eremu biziak lortzeko* ikastaroa eskainiko dute irailaren 27an, hondarreko ortziralean, Elizondon. Arizkunenea kultur etxean bilduko dira eta goizez eta arratsaldez hitzaldiak eskainiko dituzte. Bertan bazkaltzeko aukera izanen dute. Ikastaroaren helburua Nekazaritza Politika Bateratuaren dirulaguntzen banaketaren irizpide eta emaitzei buruzko eztabaida soziala irekitzea izanen da eta horretarako egitarau osoa eta anitza prestatu dute.



Hizlarien artean izanen da Otondo.

Hamar orduko ikastaroa

09:00etan hasi eta 18:30ean akituko da ikastaroa. Lehen-dabizi, Nekazaritza Politika Bateratua izanen dute aztergai; eta ondotik, Elikadura Politika Bateratua mintzatuko dira. Hainbat adituk beraien jakintzak eta esperientziak partekatuko dituzte, tartean Joseba Otondo alkateak. Izen-ematea zabalik da www.uik.eus atarian, 40 eurotan.

'Korrontziren nafar loreak' urriaren 5ean ikusgai lezean

Korrontzi taldearekin batera, eskualdeko eta Euskal Herri osoko musikariak eta dantzariak ariko dira

MARIFA ETA KORO

Korrontziren nafar loreak goiburupean, musika eta dantza uztartuko dituen ikuskizuna eskainiko dute urriaren 5ean, larunbatean, 19:00etan lezean. Korrontzi taldearekin batera, Lesakako musika banda, Berako Gure Txokoa dantza taldea, Leitzako Aurrera dantza taldea, Izaskun Iturri koreografa eta dantzaria, Atarrabiko Atarrabia abesbatza, Arratiako erraldoiak (Maurizia, Leon eta Fasio), Dani Conde (gaita & whistle), Garikoitz Mendizabal txistularia, Leturia



Korrontzi dantzan iaz Saran.

panderojolea, Ataungo Otsoak dantza taldea eta Tafallako dantzariak izanen dira emaldian. Informazio gehiagorako: www.turismozugarramurdi.com



MARIFA ETA KORO

Fernando Arburuari babesa

Fernando Arburuari atxikimendua erakusteko, elkarretaratze bat egin zen *refetako* ilunabarrean. Fernandok 11/13 sumariari aurre egin behar dio hurrengo hilabeteetan. Herritik animo aunitz eskaini nahi izan diote, berekin batera 47ak etxean nahi ditugula adieraziz.

Larunbatetan bisita antzeztuak izanen dituzte lezean

Udazkeneko larunbatetan bisita antzeztuak eskainiko dituzte Sorginen Lezean. Bi sorgin izanen dira protagonista, amatxi-ilobak. Ilunabarrean, 19:30ean hasiko dira emaldia. Aitzinetik sarrerak salgai paratuko dituzte, hamar eurotan helduendako eta sei eurotan haurrendako. Antzerki saioari buruzko informazio gehiago nahi dutenek info@zugarramurdi.es helbidera idatziz edo 948 59 90 04 telefonora deituz eskuratu ahal izanen dute interesatuak.

Errotik Urdazubira artzainen bestaren lekukoa


Irailaren 7an, joan den larunbatean, Euskal Artzainak Ameriketan elkarteko kideek ospakizun besta egin zuten Erron. Laura Iantzik, elkarteko kideak, kontatu duenez «egun boro-bila» izan zen eta mahaiaren bueltan «giro ezin hobea» izan zuten. Aurtengoa pasata, heldu den urteari begira hasiak dira. Lekukoa dagoeneko pasatu dute eta Urdazubin izanen da. Hori horrela, orain datuak biltzen segitzeko asmoa dute: «Urdazubi eta Zugarramurdi-tik joandakoak zenbat diren jakiten saiatuko gara».



MARIFA ETA KORO

Espainiako Vuelta herritik pasatu zen

Irailaren 4ean herritik pasatu zen Espainiako Vuelta. Goizetik sekulako animazioa zegoen, Gainera-bentako maldetan jendea jarriarik, helikopteroak bueltak eta kotxeak furrindaka pasatzen. Hala ere, politena segur aski, telebistan ageri ziren gure inguruko irudi ederrak izan ziren.



JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN

Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
j.mihura@hotmail.com

Ttiti Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

741

aleko
irabazleak



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera

Itxaso Etxeberria Otxandorena | ELIZONDO

Astizko lezeak - 2 sarrera

Juana Mari Eizagirre Otxandorena | SUNBILLA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Eduardo Oiarzabal Mitxeo | DONEZTEBE

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Maria Jesus Mendiberri Uhartea | NARBARTE

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Resurreccion Elizagoien Etxegarai | AMAIUR

La Rhune - 2 sarrera

Maria Eugenia Sagardoi Tanco | ETXALAR

Wow Park - 2 sarrera

Rafael Retegi Iturbide | IGANTZI

Lanku - Liburu bat

Rakel Suberbiola Porcillo | LEITZA

Lanku - Liburu bat

Koro Ameztai Etxeberria | URDAZUBI

2 sarrera



BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEA

www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA



Wow park
Votre Parc Aventure

2 sarrera

WOW PARK

<http://wowpark.fr>

LIBURUAK



• Leize-zuloko misterioa
• Z Joketako izarrak

ibaizabal

www.ibaizabal.com

LA GUN TZAI LEAK



www.okilletailerraesp.blogspot.com.es



www.martiko.com



Joan den urtean Saran egin zen Taldekako Xilabako saioa. ARTXIBOKOA

Larunbat honetan hasiko da Taldekako Xilaba txapelketa

Sarako bortz bertsolarik eta Zugarramurdiko batek parte hartuko dute bertsolari txapelketan

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko txapelketaren arrakasta ikusita, Bertsularien Lagunak elkarteak Taldekako Xilaba txapelketa antolatu du aurten ere. Larunbat honetan, irailak 20, Itsasun hasiko da eta azaroaren 16an Izuritzen egingen den bazkariarekin finitu. Tartean, ligaxkako saioetako bat irailaren 28an Saran jokatu da.

Bederatzi taldetan banatuta, 34 bertsolari aritu eta hasiberrik parte hartuko dute txapelketan, tartean eskualdeko sei lagunek. Bertsotan aritzeaz gain, bertsolariek

etxeko saioen antolatze ardua hartuko dute eta bertze ligaxketako saioak epaituko dituzte, baita horientzat gaiak prestatu ere. Finalerdietarako eta finalerako, orde, epaile eta gai-emaile taldeak osatuko dituzte.

Taldeak

Bederatzi taldeak hiru multzotan banatutako ariko dira. A multzoan ondoko hiru taldeak ariko dira: Ezkorbrutak (Mizel Mateo, Patxi Iriart, **Karlos Aizpurua –Sara–** eta Gillen Hiribarren); Eskukula (Pettan Prebende, Bittor Thi-

coipe eta Ramuntxo Christy) eta 4koplasara (**Ellande Alfaro –Sara–**, **Amets Arzallus –Sara–**, **Julene Etxeberri –Sara–** eta **Laida Etxeberri –Sara–**).

B multzoan bertze hiru talde hauek lehiatuko dira: Hasta la 2toria (Elixabet Etxandi, Lur Renteria, Maddi Sarasua, Hodei Renteria eta Leire Laskarai); Ekainaz (Ekaitza Irastorza, Aitor Servier eta Xumai Murua) eta Kontrabanda (**Josebiñe Agirre –Zugarramurdi–**, Maddalen Arzallus, Maindi Murua eta Maialen Berra).

C multzoan ariko dira gainerako hiru taldeak: Barça taldea (Battit Crouspeyre, Bixente Irigarai, Oier Urreizti eta Ekhi Perrier); Urruñago (Odei Barroso, Kerman Diaz, Iker Altuna eta Ortzi Idoate) eta Ez otoi pentsa (**Maddi Ane Txoperena –Lesaka–Hendaia–**, Miren Artetxe, **Josu Txoperena –Lesaka–Hendaia–** eta Gorka Artetxe).

Egutegia

Larunbat honetan, ligaxkako lehenbiziko saioa jokatu dute Hasta la 2toria eta Ekainaz taldeek Itsasuko Goxokin, 20:00etan. Biharamunean, hilak 21, Harparneko Bob's Berren Ezkorbrutak eta Esku-

kula taldeak ariko dira, 19:00etan.

Irailaren 28an Barça eta Urruñago Izpegiko Irigoiena bentan ariko dira, 12:30ean, eta egun berean, Sarako trinketea, 4koplasara eta Ezkorbrutak nor baino nor gehiago ariko dira, 19:00etan hasiko den bertso-afarian.

Urriaren 5ean bertze bi saio jokatu dituzte, biak 19:00etan. Aldudeko Alfaro jatetxean Kontrabanda eta Hasta la 2toria ariko dira eta Pausuko Xaian Ez otoi pentsa eta Barça taldeak.

Urriaren 11n Eskukula eta 4koplasara taldeek Amenduzko Eiheran izanen dute hitzordua (19:00etan) eta biharamunean, Ekainaz eta Kontrabanda taldeen txanda izanen da Azkaineko Xoko Onan, 18:00etan.

Ligaxka bukatzeko, azkenik, Urruñago eta Ez otoi pentsa taldeak lehiatuko dira Urruñako Berttolin, 13:00etan.

A eta B multzoetako lehenbiziko sailkatuek azaroaren 1ean Baionako Zizpa gaztetxean egingen den finalerdietarako txartela eskuratuko dute eta C multzoko lehen taldea eta multzoetako bigarren hoberena azaroaren 2an Muskildiko Posonpesenea gelan jokatu den bertze finalerdian ariko dira. Bi saioak 19:00etan hasiko dira. Txapelketa borobiltzeko azaroaren 16an Izuritzeko herriko gelan jokatu da finala, 12:00etan.

IRAILAREN 28AN LIGAXKAKO SAIOA SARAN JOKATUKO DUTE

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

BEROPEL
egurrezko pelletak
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1
ES 025

Bestak finitu orduko urriaren 5eko hitzorduari begira

Besta ttikietako afarira joateko irailaren 25a aitzin eman beharko da izena

TTIPI-TTAPA

Besta parte-hartzaileak izan dira aurtengoak. Bortz egunez, irailaren 7tik 11ra, ekitaldi andana iragan ziren eta herritarrek nahiz bisitariek ez zuten hutsik egin. Jende ainitz ibili den seinale dira datuak: lehenbiziko egunean, arratseko kontzertuan eta dantzaldian 1.100 sarrera zenbatu zituzten. Igande arratsaldeko desfilean ere sekula ez bezalako jendeketa bildu zen eta auto eta joko ederrak ikusteko aukera izan zen. Olhain ikastolak antolatuta, astelehenean egin zen

zikiro jatean, berriz, 350 bat lagunek parte hartu zuten. Bestetako bertze hitzorduak ere ederki iragan ziren.

Orain, berriz, besta ttikiei begira jarriak dira herritarrek. Urriaren 5ean izanen dira. 18:00etan esku huska partida jokatu dute eta 19:00etan aperitifa eskainiko dute. 21:00etan herri-afaria egingen dute Saranga txarangak alaituta. Izena irailaren 25a aitzin eman behar da Herriko Etxeko Edantegian, Trinketean edo Baketun. 22 euro ordaindu beharko dira afaltzeko.



Giro ederrean iragan dira bestak. LEIRE FAGOAGA ETA JEAN POUYET

Kalakan taldearen kontzertuak eta Lizarietako besta asteburuko hitzorduak

TTIPI-TTAPA

Ez da ekitaldirik faltako aste-buru honetan. Hasteko ortziraletan, larunbatean eta igandean Kalakan taldeak hiru eskainiko ditu lezeetan. Emanaldi bakoitzean hainbat artista izanen ditu ondoan, ortziraletan, Kim Carnie eta Innes

White, larunbatean Loinatz abesbatza eta igandean Berzaitz anaiak, Andoni Agirre eta Dominique Le Guichaoua. 21:00etan hasiko dira kontzertuak.

Horrez gain, igandean, usategietako tradizioaren besta ospatuko dute Lizarietan.



Kalakan taldea asteburuan Saran.

Etxalartarren eta saratarren arteko hitzarmena berrestea-ekin batera, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Xehetasun gehiago 15. orrialdean aurkituko duzue.

Irailaren 25ean, bertzetik, Saiberri taldeak kontzertua eskainiko du elizan, 21:00etan. Toki eta ordu berean Erlauntza abesbatza ariko da urriaren 3an eta Atsulai abesbatza urriaren 11n.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

BERA (administraritza) 31780 Bera	DANTXARINEA 31712 Urdax
IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Iruñ
LUZAIDE 31660 Luzaide	

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Aberriaren 25º eta urtarrilaren 1º izan ezik

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

Adineko jendea mugitzen laguntzeko autobus ttikia prest

Astean bitan gan-etorriak egingen ditu, eta Senpereko edozoin tokitarat gaten ahalko da

PIERRE BASTRES

Senpere herri aski zabala da, eta auzoaldeak elkarretarik urrun izaitzen ahal dira. Horrenbertzez adineko jendea, geroz eta gehiago, nekez ateratzen da etxetik bertze tokitarat gateko, izan dadin auto eskasagatik, bakardadeagatik edo elbarritasunagatik. CCASK (Herriko Gizarte Laguntzako Zebitzua) gan-etorriak egiteko autobus ttikia indarrean ezarri du. Asteartetan 09:00etatik 12:00etarat eta ortziletan 14:00etatik 17:00etarat aterako da, eta edozoin adineko pertsonak (65 urtez goitikoa) baliatzen ahalko du, bere etxetik edozoin bertze Senpereko tokitarat.

Camille Bourlier da Karrikarte adinekoen egoitzako animatzailea, eta bera izanen da autobus ttikiko gidaria. Kartsuki hartzen du bere lan berria, adierazten duen bezala: «zerbitzuaz baliatzeko nahi duenak deitu beharko dit aitzinetik, eta ganen natzaio bila. Ekarriko dut nahi duen gunerat, erosketen egiterat edo adiskide bati bisita ematerat, Senperen deno. Bortz euro gostua izanen du, edo bi

euro bertze norbaitek gan-etorri bera egingen badu». Horrez gainerat, gainerako aktibitateak antolatzen ditu Camillek Karrikarten, hala nola baratzea eta hurrekin elgar ezagutzea: «lehen aldikotz baratze handi bat egin dugu, permakultura jarraikiz, eta barazkiak sukaldatu dituzte egoiliarrek. Laborari ohi zumbait izaki, handizki preziatu dute denek. Bertzalde Tailandiako bizitzaile bat daukagu, eta hari esker egin bide berriak ikasi ditugu, izan baratzean zein sukaldean. Gainerat, eskola publikoko besta karrietarat jantziak josi eta sortu zituztelakotz adinekoek, haurrak etorri zaizkigu bisitaz, eskerrak emateko. Azkenik, suhiltzaileek beraien trebatzeko ariketetan parte hartzeko gonbidatu dituzte Karrikarteko bizitzaileak: batek egingen du eriaarena, bertzeak eroritakoarena eta gisa horretara. Hori dena izigarri jostagarria atzeman dute! Eta uztailean hondartzarako ateraldia egin dugu. Urte hondarreko aktibitateak oraino ari gara lantzen, eta hemendik guttira egutegia agertuko dugu».



Eskolako bestarako jantziak sortu eta josi zituzten adinekoek. PIERRE BASTRES



Adineko jendea harat-honat eramateko erabiltzen den kamioneta. PIERRE BASTRES



Egoiliar zombait suhiltzaileen egoitzan. PIERRE BASTRES



Hondartzara ateraldia egin zuten uztailean. PIERRE BASTRES



Lehen aldikotz baratze bat landu dute egoitzan. PIERRE BASTRES



Emakumeak irteeran, Asier Apezetxea garaile helmugara heltzen eta gizonetzkoen eta emakumezkoen podiuma Saran. JEAN POUYET ETA PIERRE EZKURRA

Apezetxeak eta Elzaurdiak irabazi dute Sara Korrika

140 korrikalarik burutu zuten 10,3 kilometroko ibilbidea eta Manttaleko bi korrikalariak erraz nagusitu ziren

TTIPI-TTAPA SARA

Manttaleko Asier Apezetxea arantarrak eta Ane Elzaurdia beratarrek nagusitasunez irabazi zuten buruilaren 7an Sara Korrika lasterketa. Denera 140 korrikalarik burutu zuten 10,3 kilometroko lasterketa.

Asier Apezetxeak 45 minutu eta 32 segundo behar izan

zituen. Bidasoa Atletico taldeko Xabier Alonso bigarren izan zen (47.25) eta Nicolas Mercier azkaindar hirugarren (47.39).

Ane Elzaurdiak 56 minutu eta 33 segundo behar izan zituen emakumeen lasterketa irabazteko (31. izan zen sailkapen orokorrean) eta ia hiru

minutuko aldea atera zion bigarren izan zen Amarok txakurkros taldeko Nerea Goikoetxeari (59.22). Marie Laugier hirugarren izan zen (1.00.23).

Saratarren artean, Mathieu Gachen zazpigarren izan zen (48.37), Ximun Garcia zortzigarren (49.25) eta Mattin Oronoz hamabigarren (51.06). Emakumeen artean, Claire Grillard izan zen saratar bakarra (1.12.09) eta hemeretzigarren postuan sailkatu zen. Manttaleko Angeltxo Aranibar beratarra hamargarren izan zen (50.31) eta Gure Txokoa Joseba Lasarte beratarra hamahirugarren (51.31). Bigarren eta hirugarren izan ziren beterrano mailan.

SARA KORRIKA

ESKUALDEKOAK

1. Asier Apezetxea-Arantza	45.32
7. Mathieu Gachen-Sara	48.37
8. Ximun Garcia-Sara	49.25
10. Angeltxo Aranibar-Bera	50.31
12. Mattin Oronoz-Sara	51.06
13. Joseba Lasarte-Bera	51.31
17. Juan Ramon Pikabea-Bera	53.09
29. Martin Brumeaux-Senpere	56.12
31. Ane Elzaurdia-Bera (1)	56.33
36. Andoni Garbisu-Bera	57.45
47. Mikael Simard-Senpere	59.23
61. Juanma Molinero-Bera	1.01.40
69. Olivier Irastorza-Senpere	1.02.27
73. Pierre Dubroca-Senpere	1.03.30
112. Claire Grillard-Sara (19)	1.12.09

ARANTZAKOAK ETA BERA KOAK EZ ZUTEN ARERIORIK IZAN PROBAN

Nafar Erresumako Kronoeskaladak Ibardinaren bukatuko dira urriaren 19an

TTIPI-TTAPA

Presoen eskubideen alde, Nafar Erresumako Kronoeskaladak azken txanpan sartuak dira. Lizarieta, Otxondo eta Izpegikoen ondotik, irailaren 1ean Ibañetan egin zen laugarrena eta dagoeneko, bi igoera bertzerik ez dira falta: irailaren 28an, larunbatean Larrainen, Zuberoan eginen dute. Antolatzaileen ustez, «Euskal Herriko porturik ederrean eta zailenetariko batean. Adibide bat emateko, portu horrengatik Miguel Indurainek ez zuen lortu bere

seigarren Tourra irabaztea». Azkena, berriz, urriaren 19an Ibardinaren izanen da. «Elkartasun eta bizikletaren festa haundia izaita espero dugul», diote antolatzaileek.

Didier Zago eta Adèle Kerbaol errege-erreginak Ibañetan

Irailaren 1ean Ibañetan egin zen kronoigoerari dagokionez, Didier Zago Biarnoko txapelduna itzuli zen eta berak lortu zuen garaipena, 42 minutu eta 3 segunduko denbora ikaragarriarekin. Santxo Azkarra izendatu zuten.



Parte-hartzaileak irailaren 1ean Ibañetan. AMAIA JORAJURIA

Emakumezkoetan, Bretainiako Adèle Kerbaol nagusitu zen (54.15) eta Nafarroako Katalina I.a izendatu zuten. Emakume honek orain arteko lau kronoeskaladetan parte

hartu du eta laurak irabazi ditu. Beraz, sailkapen orokorraren buruan da, 40 puntu-rekin. Lilian Sallaberry bigarren da (25 puntu) eta Jean-Marc Eyheraberry hirugarren (20).



Ekzerrean, Nafarroako taldea ordezkatu zutenak eta ordezkariak eta eskuinean Patxi Larretxeari eskainitako omenaldia. NAFARROAKO HERRI-KIROL FEDERAZIOA



Zazpi herrialdeen arteko txapelketa irabazi du Nafarroak

Unai lantzi aniztarrak kokor biltzen eta Itxaso Onsalo aresoarrak trontzan lortu dute garaipena

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren hondarreko egunean, Bilboko Casilda Iturrizar parkean jokatu zen Zazpi Herrialdeen Arteko herri-kirol Txapelketa. Izenean zazpi herrialde agertugatik, bortz talde lehiatu ziren: Hego Euskal Herriatik lau, herrialde bakoitzeko bat; eta Ipar Euskal

Herriko hirurek elkarrekin talde bat osatu zuten. Eguraldia tarteko, jokatu ohi diren hamar modalitatetik bi bertan beheiti utzi behar izan zituzten. Hala, Nafarroako taldea ordezkatzuz sokatiran aritzekoa zen Lesakako Beti Gazte taldeak eta lasto altxatzen aritzekoa zen Iñigo Goienetxe amaiur-

tarrek ezin izan zuten euren lana egin.

Bi txapel eskualdera

Lehenbiziko proba kokor biltzea izan zen eta Unai Lantzi aniztarra izan zen bizkorrena. 50 kokor biltzeko 6.18 behar izan zituen. Trontzan ere Itxaso Onsalo aresoarra, Mikel Eugirekin bikote osatuta, izan zen onena. Bi proba horiek ez ezik, zaku eramatea eta aizkora ere irabazi zituzten nafarrek eta bigarren sailkatu ziren ingude jasotzen eta orga jokoan. Azken horretan Xabi Urrutia arraiotarra aritu zen. Eskualdeko bertze ordezkaria Daniel Saldias arraiotarra izan zen eta txingekin aritu zen.

Proba horietan guztira 34 puntu lortuta, irabazle izan zen Nafarroako taldea. Bigarren Bizkaia sailkatu zen (28); hirugarren Araba (25); laugarren Ipar Euskal Herria (14); eta azken postuan Gipuzkoa (13 puntu).

Irailaren 28an Igantzin

Herri-kirol kontuekin segituz, irailaren 28an Igantziko besten barne, hitzordu garrantzitsuak izanen dira. Alde batetik, Nafarroako trontza txapelketa mistoa jokatu dute eta bertetik, Euskal Herriko kokor biltze txapelketak eginen dituzte, bai emakumezkoena baita gizonezkoena ere. Herri-kirol saioa 18:00etan hasiko da.



ERREKA KE

Superkopa irabazi du Errekak

Cantolaguaren aurka jokatu zuten Superkopa finala irabazi zuten Erreka eskubaloit taldeko seniorrek irailaren 7an. Atsedendian atzetik zebiltzan arren (bortz goleko alde zuten), bigarren zatian aitzin hartzea lortu zuten. Kopako partidak ere jokatu dituzte eta laister ligan hasiko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kontxako bandera zati bat Sunbillara

Irailaren 8an jokatu zen Kontxako bandera. Hondarribiko taldearekin, Iker Mariezkurrena sunbildarra eta Ainara Palenzuela lesakarra aritu ziren. Batak zein bertzeak lan ederra egin zuten. Gizonezkoetan lehendabizikoak sailkatu ziren Hondarribiakoak eta emakumezkoetan, bigarren.

IRAILAK 19 - URRIAK 3

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELIZONDO

'Euskararen genesiaz'
liburuaren aurkezpena

Arizkunenean, irailaren 27an,
19:00etan.

DONEZTEBE

Office 365 programa hizpide

Mankomunitatearen egoitzan,
urriaren 9an, 16:30ean. Sarrera:
doan.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

'Zoaz pake santuan'

Harriondoan, irailaren 14an,
20:00etan.

ELIZONDO

Ene Kantaken 'Satorjator,
lurraren bihotzera bidaia'
lana ikusgai

Baztan pilotalekuan, irailaren
28an, 17:00etan. Sarrera: 7
euro.

Gure Zirkua

Irailaren 27an, 28an eta 29an
eta urriaren 4an eta 5ean.
Sarrerak salgai Fantxiken eta
www.eventbrite.es atarian.

Errezitaldi poetiko-musikatua

Arizkunenean, urriaren 6an,
19:00etan.

ZUGARRAMURDI

'Korrontziren nafar loreak'

Eskualdeko dantzari eta
musikariek parte hartuko dute.
Sorginen lezean, urriaren 5ean,
19:00etan.

LEITZA

Gure Zirkua

Urriaren 11n, 12an, 13an, 18an
eta 19an. Sarrerak salgai
Maimurren eta www.eventbrite.es
atarian.



ARTXIBOKOA

AMAIUR **Baztango eskola ttikien besta**

Ibilbidea, ikuskizuna, bazkaria, jokoak, zozketa...
Irailaren 29an, egun osoz.

KONTZERTUAK

SENPERE

Jaques B. kantaria

Larreko kultur gunean, irailaren
21ean, 21:00etan.

SARA

Kalakan taldea

Lezeetan, irailaren 20an, 21ean
eta 22an, 21:00etan.

Saiberri taldea

Elizan, irailaren 21ean,
21:00etan.

Erlauntza abesbatza

Elizan, urriaren 3an, 21:00etan.

KIROLA

BERA

Mendi bizikleta-libalaldia

Iamotenean, irailaren 29an,
09:30ean.

Kronoeskalada

Ibarden, urriaren 19an.

LEITZA

Leitzulia

42km eta 1.200m-ko desnibela.
Irailaren 28an.

Kaskagorren pentatloia

Irailaren 21ean.

BERTSOA

SARA

Taldeakako Xilaba txapelketa

Trinketean, irailaren 28an,
19:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Pirinioetako XXXII. behi-
azienda lehiaketa

Irailaren 21ean eta 22an.

OSPAKIZUNAK

LESAKA

Organorako Musika Zikloa

Irailaren 20an eta 21ean.

Arrano elkartearen eguna

Irailaren 21ean.

ETXALAR-SARA

Usategietako tradizioaren
besta

Irailaren 22an.

ZIGA

Basaburua Eguna

Irailaren 21ean.

AURTIZ

Bertso-afaria

Urriaren 5ean.

ITUREN

Joaldunen Eguna

Irailaren 21ean.

LEITZA

Talo Eguna

Erakusketa, azoka eta irrintzi
lehiaketa.
Irailaren 22an.

AMAIUR

Eskola ttikien besta

Irailaren 29an.

BESTAK

DONEZTEBE

Besta ttikiak

Irailaren 20an eta 21ean.

AMAIUR

Besta ttikiak

Irailaren 20an eta 21ean.

ERRATZU

Besta ttikiak

Irailaren 28an.

URROZ

Herriko bestak

Irailaren 26tik 30era.

IGANTZI

Herriko bestak

Irailaren 27tik 30era. Aitzineko
asteburuan ere ekitaldiak
(xehetasunak: 18. or.).



ARTXIBOKOA

DONEZTEBE **Besta tikiak**

Dantzariak, buruhandiak, gaitariak, puzgarriak, dantzaldia...
Irailaren 20an eta 21ean.

SARA

Besta tikiak

Urriaren 5ean (xehetasunak 43. or.).

ERAKUSKETAK

BAZTAN

'Ruandan zer berri? Galdeiezu bizikletei' erakusketa

Arizkunenean, irailaren 26tik urriaren 10era arte.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Atabala ikastaroa

Larunbatetan, 09:00etatik 10:00etara, urriaren 5ean hasita. Izen-ematea: Arizkunenean, irailaren 27a arte.

Gaita ikastaroa

Larunbatetan, 09:00etatik 10:30era, urriaren 5ean hasita. Izen-ematea: Arizkunenean, irailaren 27a arte.

Ahots teknika

Astelehenetan, 18:00etan, 19:00etan edo 20:00etan, urritik ekainera. Izen-ematea: 670 32 21 37.

Abesbatza tikiak

Asteazkenetan, tikiak 18:00etan eta ertainak eta koxkorak 18:30etik 20:00etara. Izen-ematea: 620 22 84 55.

Nekazaritza Politika Bateratua hizpide

EHUK antolatutako udako ikastaroa.

Arizkunenean, irailaren 27an, egun osoz.

LESACA

Haurren hizkuntza-garapeneko arazoak hizpide

Harriondoan, irailaren 27an arratsaldez eta 28an goizez eta arratsaldez. Informazio gehiago: www.uik.eus atarian.

DONEZTEBE

Helduendako bertso-eskola

Izen-ematea: irailaren 27a arte.

Nire aukera

«Errusian munduko lanbide heziketa olinpiadak jokatu ditut»

OIER NEOL BURLADA ARIZKUNDARRA

Gustuko tokian, nekerik ez dagoelako, astegunez zurgintza ikasten eta denbora librean etxekoan tailerrean, «bazterrak nahasten», pasatzen ditu egunak Oier Neolek (Arizkun, 2001). Gazterik ezagutu zuen ogibidea, eta berehala lotu zitzaion lanari: «ttikitatik aitarekin han ibili izan naiz». Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak akituta, aukeratu beharrak ez zion buruhauste handirik eragin. Nahiak gidatu zuen bidea: «Lanbide Heziketara joan nintzen eta gustuko nuena aukeratu nuen: zurgintza». Ez dago gogotsu lan egitea bezalakorik, eta hori adierazten du arizkundar gazteak orain artean egin duen ibilbideak. Hasi orduko,

ikastetxean bertan jokatu zituzten Nafarroako Olinpiadak irabazi zituen. Horri esker, estatu mailako txapelketara sailkatu zen: «martxoan jokatu genuen Madrilan, hiru egunez. Komunitate bakoitzeko irabazleak bildu ginen, 15 lagun inguru. Gure mailan zailtasun gehien ematen dioten lana egin behar izan genuen: ate kurbatu



bat eta aulki bat». Urtebetez asteazkenero buru-belarri prestatzen arituagatik, «kasu horretan ez nuen inondik inora irabaztea espero, azken batean komunitate bakoitzeko hoberenak nituen aurkari». Ateak eginez eta ateak irekiz, 18 urte bertzerik ez dituela, munduko txapelketan parte hartzeko aukera lortu zuen Neolek: «abuztuan bederatzi egunez Kazanen (Errusia) jokatu genuen». Bertako «maila eta prestaketa izugarria» izanagatik, bere buruarekin «arras kontent» itzuli da: «gazteena izanik, nire helburua lana akitzea zen eta hori lortu nuen». Esperientzia «arras aberasgarria» izan da: «ingurukoengandik ikasteko aukera izan dut. Aukera duten guztiei joateko eta gozatzeko erranen nieke». Kazandik jendeak egiten duen prestaketa-lan izugarria gogoan itzuli da, «harrigarria delako». Baina, era berean, ilusioa berpiztu zaio: «gainerako herrialdeetan Lanbide Heziketari ematen dieten garrantzia ikustea ederra da». Hori horrela, «momentuz behintzat» Lanbide Heziketan segituko du. Orain artean «erremintak erabiltzen» ikasten aritu da eta goi-mailan «diseinu kontuak» landuko ditu. Bien bitartean, heldu den urtean jokatu duen Europako txapelketa prestatuko du.



BURNE ZURGINDEGIA

660 620 990

Ordoki industrialdea · ARIZKUN

BARRENEKO LANAK

SUKALDEAK · BAINUGELAK + DUTXAK FENOLIKOAREKIN
ARMAIRUAK · LAKADURA ZURIA · BERNIZADURAK · ESKAILERAK



TEILATUAK

PINU, HARITZ ETA GAZTAINETZKO TEILATUAK.
EGURRA OBRARA BERNIZATUTA ETA MEKANIZATUA ERAMATEN DUGU.
EGURRA GURE INSTALAZIOETAN IDORTZEN DUGU.



KANPOKO ATEAK

PASSIVE HOUSE



TEILATUAK PASSIVE HOUSENTZAT.
LEIHOAK: EGURRA ETA EGURRA + ALUMINIOA PASSIVE HOUSENTZAT.
GAZTAINAN ETA HARITZAN.
KRISTAL HIRUKOITZA 36-50mm BITARTEKO NEURRIKOA.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Bidasoa Karrikako 59. zenbakian pisu berritua salgai trasteleku eta ganbararekin. ☎639 12 50 46.

LESAKA. Plazan dagoen apartamentua saldu edo errentan emateko. Lehendabiziko solairua. Mobleztatua. Igogailua, ganbara tiki bat eta garajeko marrarekin. ☎675 71 43 60.

ETXALAR. Borda salgai, bere lurra-
rekin. ☎661 12 15 40.

LESAKA. pisua salgai, Bittiriako plazan. 2.solairua, 90m², hiru gela eta igogailuarekin. ☎619 30 80 60.

ORONÓZ. Etxea salgai. 4 logela, 3 bainugela, sukaldea eta egongela. Dena berritua. 165.000 eurotan. ☎722 67 03 47.

ERRENTAN EMATEKO


LESAKA. Lagun batentzat logela bat errentan emateko, urte osorako. ☎678 85 50 56.

BERA. Irailetik aitzinera pisua errentan emateko. 3 logela, bainugela, egongela eta sukaldea ditu. Mobleztatua. Berogailuarekin. ☎616 38 28 49.



ALMUÑECAR. Granadako kostatropikalean, lagun bat edo birentzako apartamentua errentan emateko. Hondartzako lehen lerroan. Igerilekuarekin. Bista ederrak. Klimatizatur, ongi hornitua. Irailaren 1etik 15era. Urtarrilean, otsailean eta martxoan ere negu goxoa. ☎658 94 37 10.

LESAKA. Bi lagunendako apartamentua errentan emateko. Bi logela. Irailetik ekainera, astelehenetik ortziralerara. ☎948 63 78 62 / 678 85 50 56.



ETXALAR. Baserri zoragarria, xehe-tasun osoz hornitua, errentan emateko, erosteko aukerarekin. ☎667 21 92 53.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

IRUÑEA. Arrotxapean, igogailuetatik hurbil, pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Mobleztatua, igogailu eta berogailuarekin. ☎666 38 80 63.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Pertsona bat bizitza bila. Ez du zertan mobleztatua izan behar. ☎687 60 96 84.

IRUÑEA. Eskualdeko bi lagun pisu bila. Unibertsitate ondoan baldin bada, hobe. ☎689 97 98 69.

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko norbaiten bila dabilta. ☎637 06 00 73.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Herri erdi-erdian, lokala salgai. ☎629 00 80 81 / 667 03 90 27.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Herri erdi-erdian, lokala errentan. ☎629 00 80 81 / 667 03 90 27.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lur eremua salgai. Errepidearen ondoan dago. ☎628 31 60 81.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Ostatu batean lanean aritzeko zerbitzaria eta sukalde laguntzaila behar dituzte. ☎617 72 34 75.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 170,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,90/8,50
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,30

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 53 €

Zerri gizona 1,465 €

Zerramak 0,730€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(abuztuaren 30etik irailaren 6ra
bitarteko prezioak)

ETXALAR Hotelean asteburuetan lan egiteko zerbitzariak behar dituzte. ☎948 635000.

ESKARIAK

ELIZONDOn bizi den emakume bat lan bila. Adinekoak eta neska-mutilak zaintzeko prest. Azkeneko 12 urteetan neska-mutilen zainketako esperientzia handia duena, erreferentziak. Etxeak garbitzen aritzeko ere prest. ☎666 37 53 72.

Esperientziadun emakumea lan bila. Etxeko lanetan, garbitasunean edo zaintzan aritzeko. Orduka edo interna moduan. ☎631 80 86 33.

BORTZIRIAK INGURUAN esperientziadun emakumea lan bila. Garbitasunean, portalak garbitzen, ariko litzateke, orduka. Kotxe propioa. ☎660 58 97 03.

Esperientziadun gizonezkoa lan bila. Animaliak zaintzen, eraikuntzan edo zainketan aritzeko prest. Ordu-tegi malgua. ☎644 07 15 37.

Adinduak zaintzen eta sukaldaritzan esperientzia duen emakumea lan bila. ☎644 23 37 26.

BORTZIRIAK. Emakumezkoa etxeak garbitzen aritzeko prest, goizetan. ☎688 71 59 58.


ELIZONDO INGURUAN adinduak zaintzen, sukaldari lanetan, garbitasunean, fabrikako langile bezala... aritzeko esperientzia duen emakume arduratsua lan bila. ☎633 07 42 24.

Esperientziadun gizona lan bila, fabriketan, bentetan, eraikuntzan...lan egiteko prest. ☎698 22 01 26.

ELIZONDO inguruan lan bila. Oso arduratsua eta adinduak edota haurrak zaintzeko, etxeko lanetarako,... prest. Esperientzia lan arlo horietan. Ordu-tegi malgua, interna moduan aritzeko ere prest. ☎631 05 04 50.


ANIMALIAK

OPARITZEKO




Zakurkumeak opari emateko. 3 hilabete dituzte. ☎600 78 54 94.

BERA. 10 hilabeteko zakurra oparitzeko, ama golden eta aita setter arrazakoa. ☎680 63 44 34.



Katakumeak opari. Ama sagu eta satagin ehiztari ona. ☎652 75 08 17.

BERTZELAKOAK



Bi txakur galdu dira Lesakan, abuztuaren 17an. Pikukoborda landetxearen inguruan. Handiak Pira izena du, 14 urte eta larrazko lepoko marroia dauka. Tikiak Pitxon izena du, biak txipa dute. ☎645 82 18 42.

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI



Peugeot 407 autoa salgai. 136 zaldi, sei abiadura, 2007koa eta 65.000 kilometro. Berri-berria bezala, kanpotik eta barnetik. ☎676 44 25 04.

Peugeot 207 SW autoa salgai. 90 zaldikoa, gasolioa. 162.000 km. 2009. urtekoa. ☎633 32 29 63.

BERRIOZARKO UDALA

EUSKARA TEKNIKARIEN KONTRATAZIO-ZERREDA

Nafarroako 28 Udala eta Mankomunitatetan euskara teknikari aritzeko kontratazio-zerrenda. Eskabideak aurkezteko azken eguna: irailaren 23a. Deialdia 2019ko irailaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.



Dacia Logan Laureate, 1.6 MPI autoa salgai, 2005ekoa, motorra gasolina, 133.000 kilometro, IAT-ITV pasatu berria eta korrea, ur bonba, olio... aldatuak. Beti garajejan egondakoa. Jabe bakarrekkoa. ☎687 83 28 44 / 617 80 46 51.



Renault Kangoo salgai. 127.000km, 60 zaldi. Diesela. 1.500 euro. ☎689 53 10 12.

EROSI

Land Rover Defenderra erosi nahi dute, berdin dio ze egoeratan dagoen: IAT-ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... ☎623 17 95 37.

DENETARIK

DENAK

Erretiroagatik zonaldeko **banaketa-enpresa bat eskualdatzen** da. Bezero anitz dituen eta furgoneta bane. ☎675 58 84 70.

GANIX
Tallerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11. BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK
RENAULT
Estreintu gabea
MEGANE IV ZEN TCE 140 CV - 17.200 €
Klim., Nab., apark. arrada. kam. - Sus. finan. lotu.
Estreintu gabea
CAPTUR ZEN TCE 90 CV - 14.675 euro
Lanta betz., Nab., apark. arrada. - Sus. finan. lotu.
www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333
Kotxe salmenta | Marka guztiak
Kotxe berriak
SUZUKI
SUZUKI GRAND VITARA 1.9
129 CV, 5 ate, 85.000 km
SUZUKI GRAND VITARA 2.0 HDI
110 CV, 5 ate, 148.000 km
4x4
www.mendaurmotor.es

SORTZEAK

- **Unax Petirena Vera**, Iturengoa, abuztuaren 16an.
- **Nahia Bruyere Lemarchand**, Sarakoa, abuztuaren 19an.
- **Ilargi Azkarraga Zubiri**, Lesakakoa, abuztuaren 20an.
- **Manex Gajate Olaetxea**, Lesakakoa, abuztuaren 27an.
- **Aiur Apeztegia Arretxea**, Sunbillakoa, abuztuaren 29an.
- **Erik Juanena Bertiz**, Urrozkoa, irailaren 2an.
- **Suhar Sorli Lizardi**, Arantzakoa, irailaren 5ean.

EZKONTZAK

- **Laurent Duperon** eta **Elodie Azkarraga**, abuztuaren 17an Saran.
- **Jean Marc Nhan** eta **Gwenola Signor**, abuztuaren 24an Saran.
- **Jokin Arretxea Lastiri** eta **Uxo Mitxelena Arriada**, Nartartekoa eta Lesakakoa, abuztuaren 2an Lesakan.
- **Erikson Manuel Hernandez Lago** eta **Daniela Isamar Duarte Bustamante**, Nikaraguakoa, irailaren 7an Lesakan.
- **Caros La Hoz Bonet** eta **Amaia Halty Barrutieta**, Madrilgoa eta Ekuadorkoa, uztailaren 8an Etxalarren.

HERIOTZAK

- **Mª Teresa Menta**, Sarakoa, abuztuaren 3an, 94 urte zituela.
- **Gilles Loudmer**, Sarakoa, abuztuaren 27an, 86 urte zituela.
- **Unai Mariezkurrena Ursuegi**, Urrozkoa, abuztuaren 30ean, 26 urte zituela.
- **Francisca Mugika Loiarte**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 3an, 94 urte zituela.
- **Begoña Errandonea Goikoetxea**, Berakoa, irailaren 6an, 58 urte zituela.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak>

OROIGARRIA



Unai MARIEZKURRENA URSUEGI

Tikitatik izan zara
Iturraldin hazia
Geldirik egon ezina
Lagunekin beti alukeria
Maite zenuen familia
Maite lagun artia
Zure hutsa nabarituko da
Zaila hori betetzia
Lastima zure ondun
Momentu gehio ez bizitzia
Besarkada bat Iturralde
Hartu gure maitasun guzia.
ZURE LAGUNAK

OROIGARRIA



Unai MARIEZKURRENA URSUEGI *Iturralde*

Abuztuaren 30ean hil zen, 26 urte zituela.

**Ustekabeen etorri zinen
eta ustekabeen joan zara.**

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Eugenio ARRUTI MUTUBERRIA *Arane*

Bertizen, 2018ko abuztuaren 22an · **I. urteurrena**



Urte bat bete da
gure artean ez zaitugula.
Hagitz gogorra izan da azken urte hau
zure besarkadak eta maitasunik gabe.
Baina hain haundia zen zure izaera, kemena eta irrifarra,
orain aurrera egiteko indarra ematen diguzula.
Zuretzat, besarkada eta muxu mila doazela hemendik,
eta jakin, egunen batean aurrez aurre emanen dizkizugula.

ZURE EMATZTEA ETA FAMILIA

URTEURRENA

Felipe GANBOA JORAJURIA

2018ko irailaren 24an
I. urteurrena



Joan zinen ta gurekin zaude,
ulertzen zaila da sarri.
Beti gurekin dagona ere
ezin daiteke ekarri.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Maite ARBURUA JIMENEZ

2016ko irailaren 22an
III. urteurrena



Alaitasunaren iturritik
Hazi ginen elkarrekin
Oroimenean izango zara
Zu beti gurekin.
Zure oroimena beti izango da
Gure bihotzetan, Maite.

ZURE FAMILIA

IRACHE

tanatorioak
Betidanik

**BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)**

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70



BEILATOKIAK

ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak BAZTAN, BERAN, BORTZIRIAK eta MALERREKA

Hurbiltasuna eta begirunea

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜLA TU LADO

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**

Ehorzketak Zerbitzuak:

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU
365 EGUN**

948 48 95 50

info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

KONTATU KONTUAK




Lekarozko Kortaria gaztandegia Ordizian irabazle. 47 gazta aurkeztu ziren lehiaketara eta guztien artean, aurten bigarren urtez, Kortaria gaztandegiak lortu zuen Ordiziako 46. gazta lehiaketako garaipena. Aipatzekoa da bi urtez segidan irabaztea lortu duen lehendabizikoa izan dela. Enkantean 9.000 euro ordaindu zuten gazta erdiaren truk, iaz baino 250 euro gehiago.



Jubiloteakako aktore lanetan. Elizondoko jubilotekako partaide batzuek udan *Rodando en Navarra con el oscarizado Asghar Farhadi* tailerretan parte hartu dute. Edurne Garrok, Sarina Farhadi eta Joaquín Calderónek batera, *Siempre aquí* filmean aktore-lana egin zuten; Joxe Pérez eta Ana María Ugartek, berriz, 'Valzer' filmean parte hartu zuten.




Presoen aldeko mendi martxa. Bortzirietako Ernaik antolatuta, presoen alde mendi martxa egin zuten abuztuaren 31n, Lesakako plazatik Unanura. Mattin, Igor eta Sanse lesakarrak preso hartu eta «Espainiako injustizien epaitegiak ehunka urtetako espetxe zigorrak jarri zizkienetik» 11 urte bete direla gogoratu zuten; baita Mikel Karrera arantzarrari Frantziak jarritako zigorra ere. 11/13 auziko 47 lagunak ere gogoan izan zituzten.



Izaro Marin Berrueta ebkalartarrak bi urte beteko ditu irailaren 22an. Zorionak eta besarkada haundi bat etxekoan partetik!



Zigako Ane Ibarra Gaskuek 9 urte beteko ditu irailaren 22an. Familiaren eta bereziki Marenen partetik aunitz urtez! Egund polita pasa zure urtebetetzear.




Doneztebeko Irai Lopez Oteizak irailaren 29an 3 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Oier anaiaren partetik. Egund polita pasa!



Aunitz urtez Elizondoko **Eider eta Mattin Legarrear** irailaren 23an eta 25ean urteak beteko dituztelako! Ongi pasatu eguna politak! Zorionak etxekoan partetik, bereziki Unaxen partetik!



Igantziako **Unax Urtxegi Rodrigok** 8 urte beteko ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta bereziki Izaro eta Enara arreben partetik!



Urdazubiko **Ekhi Jaurena Eizagirrek** 5 urte beteko ditu urriaren 1ean. Zorionak, aunitz urtez eta 5 muxu erraldoi attatto eta amattoren partetik!!!



Aritz, Aroa eta Josu: zorionak hirukote, ongi pasatu zuen egunak eta ea ospatzen dugun denak elkarrekin. Muxu bana zuen familien partetik.



Urdazubiko **Ekhi Jaurena Eizagirrek** urriaren 1ean 5 urte beteko ditu. Zorionak amatxi, birramatxi, izeba, osaba eta bereziki Eñaut lehengusuaren partetik!

PLAZAN BAZAN



BIKOIZKETA

Pertsonaiak albo batera utzita, badira gutxienez 9 elementu bi irudietan ageri direnak. Ikusten al dituzu?



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9





Zazpi zati hauetatik hiru ezkerreko iruditik hartuta daude eta gainerako laurak engainagarriak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



SUDOKUA

Osatu ondoko sudokua URDINA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (U, R, D, I, N eta A). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

U				N	R
		A			
I				D	
	R		N		
		R	U		
N	A		D		I

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



VI. NAFARROAKO LASTERKETA SOLIDARIOA

5 & 10 KMS.

VI. CARRERA SOLIDARIA NAVARRA

ARAUTUTAKO KILOMETRAJEA - KILOMETRAJE REGLADO



IRUÑA-PAMPLONA

URRIAK 6 OCTUBRE 2019

IRTEERA - SALIDA: Pº SARASATE - 11H.

 *izen-emate epea zabalik*
inscripciones abiertas

Rock the **sport**



DN

DIARIO DE
NAVARRA

INSKRIPZIOAREN DIRUBILKETA **ANFAS** EN ALDE IZANGO DA. LA INSCRIPCIÓN SERÁ ÍNTEGRAMENTE PARA AYUDAR A **ANFAS**

banka kooperatiboa



LABORAL
kutxa